



**Gradu Bikoitza: Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza +  
Zuzenbidea**

*2023/2024 ikasturtea*

**SEME-ALABA ADIN NAGUSIEN  
MANTENU-ESKUBIDEA**

EGILEA: Maria Areces Del Busto

ZUZENDARIA: Maitena Arakistain Arriola

Bilbon, 2024ko otsailaren 15ean

## AURKIBIDEA

<b>LABURDURAK.....</b>	<b>1</b>
<b>1) SARRERA.....</b>	<b>2</b>
<b>2) TESTUINGURUA.....</b>	<b>3</b>
<b>3) AHAIDEEN ARTEKO MANTENUA, OROKORREAN.....</b>	<b>7</b>
3.1) EZAUGARRIAK.....	7
3.2) EDUKIA.....	10
3.3) SUBJEKTUAK.....	15
3.4) AHAIDEEN ARTEKO MANTENUAREN AZKENTZEA.....	16
<b>4) SEME-ALABA ADIN NAGUSIEN MANTENU-ESKUBIDEA.....</b>	<b>16</b>
4.1) BETEKIZUNAK, ORO HAR.....	16
4.2) DIBORTZIO EDO BANAKETA EGOEREN BEREZITASUNAK.....	19
4.2.1) Gurasoek noiz arte ordaindu beharko dute adin nagusiak diren seme-alabekiko mantenu-pentsioa?.....	22
4.2.2) Guraso eta seme-alabaren arteko harremanik eza mantenu-pentsioa ukatzeko arrazoi gisa.....	30
4.2.3) Erreklamatzeko legitimazioa.....	34
<b>5) ONDORIOAK.....</b>	<b>37</b>
<b>6) BIBLIOGRAFIA.....</b>	<b>40</b>
AUZITEGI GORENAREN EPAIAK.....	42
PROBINTZIA AUZITEGIAREN EPAIAK.....	43
ARAUDIA.....	44



## 1) SARRERA

Familia-harremanen baitan, eta konkretuki, seme-alaba eta gurasoen arteko harremanen baitan, egoera eta eztabaida ezberdinak sortzen dira, Zuzenbidearen aplikazioa galdatzen dutenak. Alde batetik, gurasoak ditugu, seme-alabatasuna dela eta, seme-alabekiko betebeharrak nahiz eskubideak dituztenak, baina batez ere, obligazioak; eta beste alde batetik, seme-alabak ditugu, seme-alabatasun beragatik, hain zuzen, haien gurasoenganako eskubideak dituzte, eta baita obligazioak ere bai.

Gurasoek haien seme-alabekiko duten betebeharren artean, ugariak eta ohikoak dira seme-alaben mantenuaren inguruko auziak. Izan ere, badira legeak araututako egoerak, hau da, badira legearen erantzun argia duten egoerak baina badira auzitegi eta epaitegien interpretazioa eta balorazioa beharrezkoa duten egoerak ere bai. Hots, praktikan, seme-alaba adin txikikoen mantenuaz hitz egitean, ez dago, oro har, eztabaida liskartsurik; legeak berak, seme-alaba adingabeen mantenu-eskubidea guraso-ahalaren betebeharrekin lotzen du (KZ 154. art.), horren baitan seme-alabak emantzipatugabeak direnean gurasoek haiekiko dituzten betebeharrak manu horretan zehaztuta daudelarik.

Aldiz, seme-alaba horiek adin nagusitasunera heltzen direnean, mantenuaren inguruko egoera ez da hain argia. Adin nagusitasunera heldu bezain pronto, seme-alaba horrek mantenua jasotzeko duen eskubidea aldatzen al da? Adin nagusitasunak independentzia ekonomikoa presumitzen al du? Gurasoek adin nagusiko seme-alabei mantenua emateko betebeharra badaukate, zein da betebehar horren hedadura eta zein kasutan ematen da? Adibidez, hezkuntzaren barnean, hezkuntza pribatua bat ordaintzeko obligazioa dute? Legearen aurrean, mantenuari dagokionez, adin nagusiko seme-alabek ez badute adin txikikoen tratu berdina jasotzen, zeintzuk dira adin nagusiko seme-alaba batek bere gurasoengatik mantenua eskatzeko betekizunak? Noiz arte mantendu behar dituzte gurasoek beren seme-alabak? Hogeit urte baditut eta ikasten jarraitzen badut, inolako diru-sarrerarik gabe, nire gurasoek mantenua ordaintzen jarraitu behar dute? Halaber, bere adin nagusiko seme-alabekin harremanik ez duen aita batek mantenu-pentsioa ordaintzen jarraitu behar du, edo harreman-falta horrek aldatzen du mantenu-pentsioaren betebeharra? Nola erreklamatu dezake adin nagusia den seme-alaba batek bere gurasoetako batek zor dion mantenu-pentsioa?

Lan honetan galdera guzti hauei erantzuna ematen saiatuko naiz, Kode Zibilaren araudia eta jurisprudentzia aztertuz. Ikusiko dugunez, adin nagusiko seme-alaben mantenuaren kasuan, antzeko baldintzak dituzten egoerak modu ezberdinean interpretatuak izan daitezke auzitegietan. Bestalde, gurasoak banandu edo dibortziatzen direnean, adin txikikoen mantenu-pentsioa hitzarmen arauemailearen parte izaten da beti, baina amankomunean dituzten seme-alabak adin nagusitasunera heltzean, askotan bere seme-alabekin bizi ez den gurasoa, mantenua ordaintzen saihesten saiatzen da; horregatik ere, adin nagusiak diren seme-alabek jasotzen duten mantenu-pentsioaren norainokoak aztertuko ditugu.

Hortaz, lehendabizi, mantenu-obligazioaren inguruko testuingurua azalduko dugu, horren jatorria eta kontzeptua azalduz, bai eta adin txikikoen mantenuaren eta adin nagusien mantenuaren arteko aldea. Bigarrenik, eta adin nagusiak diren seme-alaben mantenuan zentratuta, ahaideen arteko mantenua orokorrean azaltzeari ekingo diogu, horren barruan kokatzen baita adin nagusiak diren seme-alabek gurasoengandik mantenua jasotzeko duten eskubidea. Beraz, ahaideen arteko mantenuaren ezaugarriak, edukia, subjektuak eta azkentzea azalduko ditugu. Amaitzeko, adin nagusiak diren seme-alabek beren gurasoengandik mantenua jaso edo eskatu ahal izateko galdatzen diren betekizunak aztertuko ditugu, eta gurasoen banaketa edo dibortzio egoeretan, adin nagusiko seme-alabek duten mantenu-pentsioa jasotzeko eskubideaz hitz egingo dugu, praktika juridikoan dituen berezitasunak aztertuz.

## 2) TESTUINGURUA

Hasteko, oro har, beren ondorengoei mantenua ematea gurasoentzat betebehar bat da, eta hori Espainiako Konstituzioan (hemendik aurrera “EK”) eta Kode Zibilean (hemendik aurrera “KZ”) dago jasota. EK 39. artikulua<sup>1</sup>, lehenik eta behin, Estatuak, botere publikoen bitartez, familiei babespen sozial, ekonomiko eta juridikoa bermatuko die, eta bigarrenik, seme-alabei babes integrala eman beharko zaie, seme-alabatasuna eta adina

---

<sup>1</sup> Espainiako Konstituzioaren 39. artikulua: «1. Botere publikoek familiaren babespen sozial, ekonomiko eta juridikoa ziurtatzen dute. 2. Botere publikoek, era berean, seme-alaben babespen osoa ziurtatzen dute, hauek legearen aurrean berdinak izanik jatorria alde batetara utziz, eta hauen amena berauon egoera zibila edonolakoa izanik. Legeak posibilitatuko du aitatasunaren ikerketa. 3. Gurasoek era guztietako laguntza eskaini behar diete semealabei nahiz ezkontzakoak nahiz ezkontzatik kanpokoak izan, haien adingabearoan eta beste kasuetan legalki eratorzen denean. 4. Umeek nazio arteko akordioetan beraien eskubideen alde beilatzen den alde aurretik ikusitako babesaz gozatuko dute».

edozein direla ere. Hala ere, GALLARDO RODRÍGUEZek esaten duen moduan, Estatua ez da babes hori ematera behartuta egongo den bakarra, izan ere, EK 39.3. artikulua seme-alaben gurasoak erantzule gisa ere aipatzen ditu, bai ezkontzakoak nahiz ezkontzatik kanpoko seme-alabei era guztietako laguntza eman beharko dietela esanez, adingabeak diren bitartean eta “*legez hala dagokien gainerako kasuetan*”<sup>2</sup>. Azken esaldi horretan, hain zuzen, aurkitzen da argitu beharreko lehenengo eztabaida. Hau da, alde batetik, KZ 110. artikulua daukagu, zeinaren arabera, gurasoek, nahiz eta guraso-ahalik ez izan, seme-alaba adingabeak zaindu eta eurei mantenua emateko betebeharra duten; eta hari beretik, KZ 154. artikulua emantzipatu gabeko adintxikiak guraso-ahalmenaren pean daudela ezarri ondoren, gurasoek seme-alabenganako dituzten betebeharrak zerrendatzen ditu, horien artean, seme-alabak jagotea, eurokin izatea, horiei mantenua ematea, seme-alabak hezteak, eta, berebat, seme-alaba horiei oso-osoko heziketa emateko betebeharrak daude. Baina beste alde batetik, seme-alaba horiek adin nagusi bihurtzen direnean, beste arau juridiko batzuetan oinarrituko da gurasoek duten haienganako mantenu-betebeharra.

Beraz, zein da adin nagusiko seme-alabek haien gurasoei mantenua eskatzeko eskubidearen oinarri juridikoa? Izan ere, esan bezala, alde batetik, KZ 110. artikulua daukagu<sup>3</sup>, gurasoek adin txikiko seme-alabenganako mantenua arautzen duena, eta beste alde batetik, KZ 142. artikulua<sup>4</sup>, senideen arteko mantenua orokorrean, arautzen duena. Hau da, orokorrean, gurasoek beren seme-alabenganako mantenuaren aurrean KZ bi manu ditugu, eta horregatik garrantzitsua da bi manu horiek araututako bi egoerak ezberdintzea, adingabeak diren seme-alaben mantenua eta adin nagusikoak diren seme-alaben mantenua, hain zuzen.

Lehenik eta behin, KZ 110. artikuluko mantenu-betebeharra gurasoei baino ez zaie ezartzen, eta aldiz, KZ 142. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusitako mantenuak senide zehatz batzuen arteko elkarrekiko betebeharrak eta eskubide izaera du<sup>5</sup>; beraz, posible da

<sup>2</sup> GALLARDO RODRÍGUEZ, Almudena, ESTANCONA PÉREZ, Araya Alicia eta BERTI DE MARINNIS, Giovanni. *Los nuevos retos del derecho de familia*, Tirant lo Blanch, Valentzia, 2020, 336. orrialdea.

<sup>3</sup> KZ 110. art.: «*Aitak eta amak, nahiz eta guraso-ahalik izan ez, betebeharra dute, seme-alaba adingabeak jagon eta eurei mantenua emateko*».

<sup>4</sup> KZ 142. art.: «*Mantenua hartzen da mantenuerako, logelarako, janzteko eta mediku-laguntzarako ezinbestekoa den gutxia. Mantenuaren barruan sartzen dira, halaber, mantenu-hartzailea hezteak eta irakasteak, adingabeak den bitartean eta, geroago ere, prestakuntza amaitu ez badu berari egotzi ezin zaion arrazoi batengatik. Mantenuaren artean sartuko dira haurdunaldiko eta erditzeko gastuak, beste modu batera estalita ez badaude*».

<sup>5</sup> KZ 143. art.: «*Elkarri mantenua eman behar diote, aurreko artikuluan adierazitako hedadura osoan: 1. Ezkontideek. 2. Aurreko eta ondorengoek. Neba-arrebek elkarri zor dizkiote bizitzeko beharrezkoak diren*

gurasoek seme-alabak mantentzeko betebeharra sortzea edo seme-alabak izatea beren gurasoekiko mantenu-betebeharraren zordunak<sup>6</sup>. Lan honetan, gurasoek seme-alabekiko duten betebeharrari jarriko diogu arreta.

Bigarrenik, seme-alaba adingabeak eta adin nagusiak edo emantzipatuak bereiztearen atzean dagoen azalpena argitzeko, 55/2015eko AGEra joko dugu. AGE honen arabera, seme-alabenganako mantenu-betebeharra gurasoek duten legezko betebeharra da, familia-elkartasunaren printzipioan oinarrituta dago, eta esan bezala, konstituzio-oinarria du, EK 39.1. eta 3. artikuluan; eta gainera, ordenamendu juridikoan etika-edukirik handiena duen betebeharra da. Seme-alaba adingabeak diren edo ez kontuan hartuta tratamendu juridiko desberdina aldarrikatzen da; izan ere, seme-alabak adingabeak direnean, mantenu-betebehar bat baino gehiago, filiazioari datxekion obligazio saihestezina da, eta hura hasiera batean baldintzarik gabekoa da, hura betetzeko zailtasuna zein den edota arretarik ezaren gaitzespen-maila zein den kontuan hartu gabe<sup>7</sup>. Edukia ere ezberdina da seme-alabak adin txikikoak badira edo adin nagusikoak badira, izan ere, adingabeei dagokienez, ordaindu behar diren premia ugari biltzen dituzte; aldiz, adin nagusikoen kasuan, askoz ere murriztagoetara murriztu daitezke, eta muturreko kasuetan desagertu egin daiteke, beti egongo baita proportzionaltasun-printzipioaren aplikazioaren mende<sup>8</sup>. Eta seme-alaba adingabeen mantenuak lehentasuna du gainerako senide mantenu-hartzaileen aurretik; adin nagusikoen matenuak, berriz, ez lukete lehentasunik izango gainerako senideen aldean<sup>9</sup>.

Gainera, seme-alaba adingabeen mantenu-betebeharrak ezaugarri bereziak ditu, eta ezaugarri horiek bereizten dituzte gainerako legezko mantenu-zorretatik, hots, bai senideekiko orokorrean, bai adin nagusiak diren seme-alabekiko konkretuki<sup>10</sup>. 918/1993ko AGEren arabera, seme adingabeari zor zaion mantenuaren tratamendu juridikoak lehentasun

---

*laguntzak bakarrik, eurontzat laguntza horiek nahitaezkoak direnean mantenu-hartzaileari egotzi ezin zaion arrazoiaren ondorioz; laguntza horiek hedatuko dira, hala denean, neba-arrebon hezkuntzarako beharrezkoak diren laguntzetara ere».*

<sup>6</sup> VERDERA SERVER, Rafael, “Título V: De la paternidad y filiación, Capítulo I: De la filiación y sus efectos”, BERCOVITZ RODRÍGUEZ-CANO, Rodrigoren, *Comentarios al Código Civil*, Tirant lo Blanch, Valentzia, 2013, 1149. orrialdea.

<sup>7</sup> 55/2015 AGE 2015eko otsailaren 12koa (ROJ: 439/2015)

<sup>8</sup> GALLARDO RODRÍGUEZ, Almudena, ESTANCONA PÉREZ, Araya Alicia eta BERTI DE MARINIS, Giovanni (2020): *Los nuevos retos del derecho de familia*, Tirant lo Blanch, Valentzia, 337. orrialdea.

<sup>9</sup> GALLARDO RODRÍGUEZ, Almudena, ESTANCONA PÉREZ, Araya Alicia eta BERTI DE MARINIS, Giovanni (2020): *Los nuevos retos del derecho de familia*, Tirant lo Blanch, Valentzia, 337. orrialdea.

<sup>10</sup> 918/1993 AGE 1993ko urriaren 5koa (ROJ: 6585/ 1993), 2. zuzenbide oinarria

nabarmena du, eta, hain zuzen ere, gurasoen eta seme-alaben arteko harremanetik eratorrita guraso-ahalaren barruan sartzen denez (KZ 110. art.), ez du senideen arteko mantenuaren legezko araubidearen berezko mugen eraginik izan behar<sup>11</sup>; izan ere, araubide hori, neurri handi batean, seme-alaba adin nagusikoen edo emantzipatuen kasurako baino ez da egokia.

Beraz, seme-alabak adingabeak diren bitartean, mantenu-betebeharra guraso-ahalaren edukiaren barruan sartzen da, KZ 154. artikulua arabera eta, ordea, seme-alabak adin nagusitasunera heltzen direnean, beharrizan-egoeran badaude, KZ 142. artikulua eta hurrengoak aplikagarriak izango dira<sup>12</sup>. Hori bera esaten du 213/2022ko Alicanteko Probintzia Auzitegiak emandako epaiak, zeinaren arabera, KZ 142. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusitako araudia gurasoen eta adin nagusiko edo emantzipatutako seme-alaben arteko mantenu aplikatzeko egokia den<sup>13</sup>.

Amaitzeko, CALLIZO LÓPEZ-en arabera, adin nagusiko seme-alaben mantenuari dagokionez, gizarte-errealitateak berak, zeinaren arabera arau juridikoak interpretatu behar diren, seme-alabak, adin-nagusitasuna lortuta ere, gurasoen mendekotasun ekonomikoaren pean jarraitzen dutela erakusten du, batez ere bi arrazoiengatik: batetik, normalean adingabe baten prestakuntza akademikoa, kualifikazio jakin bat duen lanpostu bat lortzeko ezinbesteko elementua dena, hogeita bi eta hogeita lau urte bitartean amaitzen delako, gutxi gorabehera; eta, bestetik, gaur egun lan-merkatuan sartzea bereziki zaila delako lanpostu egonkor eta egoki bat lortzeko, gurasoekiko bizimodu independentea egiteko aukera ematen dioten diru-sarrerak lortze aldera. Arrazoi horiek justifikatzen dute gurasoek seme-alabekiko duten mantenu-betebeharra ez dela automatikoki eteten seme-alabak adin-nagusitasunera edo emantzipaziora iristen direnean. Hala ere, araubide juridikoa ez da emantzipatu gabeko seme-alaba adingabeen mantenuarena bezalakoa; izan ere, seme-alaba adin nagusien

<sup>11</sup> Argituz: hurrengo ataletan azalduko ditugu muga horiek, baina beharrizan egoera eta mantenu-emailearen gaitasuna dira, besteak beste, KZ 146. artikulua arabera mugak.

<sup>12</sup> 703/2014 AGE 2015eko urtarrilaren 19koa (ROJ: 427/2015), seigarren zuzenbide oinarrian: «Kode Zibilaren 93. artikulua ezartzen du seme-alaba adindunen kasuan, seme-alaba horiek familiaren egoitzan bizi badira eta diru-sarrera propiorik ez badute, epaileak ezarriko duela kode beraren 142. artikuluekin eta hurrengoekin bat etorriz bidezkoa den mantenua. Artikulu horiek senideen arteko mantenua arautzen dute. Ezkontzan, guraso-ahalean eta tutoretzan, Kode Zibilak mantenua aipatzen du, erakunde horietako bakoitzaren betebehar gisa. Baina mantenua— Kode Zibilaren Seigarren Tituluan aipatzen dira — entitate independentea dute, eta betebehar gisa sortzen dira senide jakin batzuen artean eta inguruabar jakin batzuetan».

<sup>13</sup> 213/2022 Alicanteko PAren epaia 2022ko maiatzaren 2koa (ROJ: 977/2022), 2. Zuzenbide oinarria: «Hala ere, Auzitegi Gorenaren jurisprudentziak ere adierazi du Kode Zibilaren 142. artikuluan eta hurrengoetan (1889/1 EDL) aurreikusitako araudia egokia dela mantenua ordaintzeko betebeharra gurasoen eta seme-alaba adindunen edo emantzipatuen artekoa denean...».



mantenu-eskubidea ez da baldintzarik gabeko eta denbora-mugarik gabeko eskubide bat edozein hipotesitan<sup>14</sup>. Beraz, hitz gutxitan esanda, bai adingabeak diren eta bai adin nagusikoak diren seme-alabek beren gurasoen aldetik mantenua jasotzeko eskubidea dute, baina ezaugarri eta berezitasun ezberdinak dituzte, lan honetan bigarren horietan sakonduko dugularik.

### **3) AHAIDEEN ARTEKO MANTENUA, OROKORREAN**

Testuinguruan esan bezala, gurasoek beren adin nagusiko seme-alaben gain duten mantenu-betebeharra ahaideen arteko mantentzat hartzen da eta hortaz, bere araudia Kode Zibilaren I Liburuko VI. tituluari, “Ahaideen arteko mantenua”, 142-153. artikuluetan aurkitzen dugu. Beraz, komenigarria da, orokorrean, ahaideen arteko mantenuaren inguruan hitz egitea, 184/2001eko AGEk mantenua emateko betebeharra familia-elkartasunaren printzipioan oinarritzen dela dioela kontuan izanda<sup>15</sup>. Atal honetan, beraz, hori egingo dugu, ahaideen arteko mantenuaren ezaugarriak, edukia, subjektuak eta bere azkentzea azalduko dugu.

#### **3.1) EZAUGARRIAK**

Ezaugarriei dagokienez, hasteko, BERCOVITZen hitzetan, ahaideen arteko mantenua txit pertsonala da; KZ 151. artikulua agintzen duenaren arabera, mantenu-eskubideari ezin zaio uko egin, ezin zaio hirugarren bati eskualdatu, eta ezin da konpentsatu. Hau da, guztiz pertsonala eta xedaezina da, eta, aldi berean, eskualdaezina, uko egin ezina, enbargaezina, horien gainean ezinezkoa da transakziorik egitea eta heriotzarekin azkentzen da<sup>16</sup>.

Bigarrenik, Kode Zibilaren 143. artikulua berariaz aipatzen duen elkarrekikotasuna ahaideen arteko mantenuaren beste funtsezko ezaugarri bat da<sup>17</sup>; izan ere, beharrian-egoeran

<sup>14</sup> CALLIZO LÓPEZ, M<sup>o</sup> Ángeles. «Obligación legal de alimentos respecto a los hijos mayores de edad: Análisis del artículo 66 de la Ley 13/2006, de 27 de diciembre, de derecho de la persona», *Revista de Derecho Aragonés*, ISSN 1135-9714, 2008, 69. orrialdea.

<sup>15</sup> 184/2001 AGE 2001eko martxoaren 1ekoa (ROJ: 1584/2001), lehenengo zuzenbide-oinarria

<sup>16</sup> CUENA CASAS, Matilde, “Título VI: De los alimentos entre parientes”, BERCOVITZ RODRÍGUEZ-CANO, Rodrigoren, *Comentarios al Código Civil*, Tirant lo Blanch, Valentzia, 2013, 1438. orrialdea.

<sup>17</sup> CUENA CASAS, Matilde, “Título VI: De los alimentos entre parientes”, BERCOVITZ RODRÍGUEZ-CANO, Rodrigoren, *Comentarios al Código Civil*, Tirant lo Blanch, Valentzia, 2013, 1439. orrialdea.

dagoen senideari mantenua emateko betebeharra duenak eskubidea izango du senideari mantenua eskatzeko, baldin eta legeak<sup>18</sup> galdatzen duen beharrizan-egoera eta gaitasun ekonomikoaren baldintzak betetzen badira, ahaidetasunaren elkarrekiko izaeran oinarrituta<sup>19</sup>.

Hirugarrenik, ACEDO PENCOk dioen moduan, ahaideen arteko mantenua preskribaezina da ere bai, beti eskatu ahal izango da mantenu-hartzailea beharrizan egoeran dagoenean<sup>20</sup>; hala ere, betebeharra zehaztuta eta amaituta dagoenean, erreklamatzeko eskubideak bost urtera preskribatzen du<sup>21</sup>.

Ezaugarriekin jarraituz, ahaideen arteko mantenu-betebeharra erlatiboa eta aldakorra da. Izan ere, pertsona jakin batzuen artean baino ez da gertatzen<sup>22</sup>, eta ezin zaie eskualdatu ez mantenu-emailearen oinordekoei (KZ 150.art.), ez mantenu-hartzailearen oinordekoei (KZ 152.1. art.)<sup>23</sup>. Objektiboki zehaztugabea da ere bai, behartuaren ahalmen ekonomikoaren eta mantenu-hartzailearen beharraren arabera zehazten baita, KZ 147. artikulua dioen moduan, “...mantenua proporzionalki urritu edo handituko da, mantenuaren onuradunak dituen beharrizanak gehitu edo urritu ahala, eta mantenua zein ondasunek ordaindu behar duen kontuan hartuta”.

Horrez gain, mantenu-betebeharra doako egintza da. Hau da, legeak ezarritako betekizuna da, mantenu-emaileari ezartzen zaiona eta mantenu-hartzaileak ez du inolako kontraprestaziorik egin behar mantenu horren truke. Mantenu-hartzaileak ondare-atribuzio moduko bat jasotzen du, baina atribuzio hori bizitzaren beharrak asetzerara dago zuzenduta eta beraz, ez da mantenu-hartzailearen aberastasunik sortzen. Hau dela eta, mantenu-hartzaileak

---

<sup>18</sup> KZ 146. artikulua

<sup>19</sup> CUENA CASAS, Matilde, “Título VI: De los alimentos entre parientes”, BERCOVITZ RODRÍGUEZ-CANO, Rodrigoren, *Comentarios al Código Civil*, Tirant lo Blanch, Valentzia, 2013, 1439. orrialdea.

<sup>20</sup> ACEDO PENCO, Ángel. *Derecho de familia*, Dykinson, Madril, 2013, 38. orrialdea.

<sup>21</sup> KZ 1966.1. art.: «Bost urte igaro ondoren preskribatzen dira hurrengo betebeharren betetzea eskatzeko akzioak: 1) Mantenu-pentsioak ordaintzeko betebeharrarena».

<sup>22</sup> KZ 143. art.: «Elkarri mantenua ematera behartuta daude, aurreko artikuluan adierazitako hedadura osoan: 1) Ezkontideak. 2) Aurrekoak eta ondorengoak. Neba-arrebek bizitzarako beharrezkoak diren laguntzak bakarrik zor dituzte, horiek behar dituztenean, mantenu-emaileari egotzi ezin zaion edozein arrazoiren ondorioz, eta, hala denean, laguntza horiek luzatuko dira euren hezkuntzarako beharrezkoak direnetara».

<sup>23</sup> CUENA CASAS, Matilde, “Título VI: De los alimentos entre parientes”, BERCOVITZ RODRÍGUEZ-CANO, Rodrigoren, *Comentarios al Código Civil*, Tirant lo Blanch, Valentzia, 2013, 1439. orrialdea.

ez ditu mantenu-emailearen oinordetzan mantentzat jasotako kopuruak kolazionatu behar<sup>24</sup>. Doako izaera horren ondorioz, gaur egungo mantenu-hartzaileak bere egoera ekonomikoa hobetzen duenean, ez du zertan mantenu-emaileari beharizan-egoeran egonda jasotakoa itzuli. Gainera, argitu beharra dago, ezin dela dohaintzat hartu ere ez; izan ere, legeak inposaturik mantenu-emaileak egikaritzen duen betebeharra da, hots, ez da egintza librea.

Subsidiaritatea ahaideen arteko mantenu-betebeharraren ezaugarria ere bada. Hau da, berez, KZ 142. art. eta hurrengoak aplikagarriak izan daitezten eta beraz, ahaideak mantenu-emaile izatera heltzeko, lehendabizi, gainerako mantenu-iturriak agortu behar dira. Beste modu batean esanda, BERCOVITZek dioen moduan, «*Bakarrik eskatu ahal izango zaio laguntza familiari Estatuak ezin baditu behar horiek bete, eta, ildo horretatik, ahaideen arteko mantenu-betebeharraren subsidiaritasuna aldarrikatu ahal izango da*»<sup>25</sup>.

Ezaugarriekin amaitzeko, mantenu-betebeharrak atzeraeragin eza du, «*in praeteritum non vivitur*<sup>26</sup>» maxima dela eta. Izan ere, 639/2021eko Ourenseko Probintzia Auzitegiak emandako epaiaren arabera<sup>27</sup>, maxima horren baitan, mantenuak ez duenez atzeraeraginezko ondorerik, mantenua ordaintzera behartuta dagoena hori ordaintzera behartu ahalko zaio soilik demanda jarri zenetik, hau da, atzeraeraginezko gabezi hori mantenua mantenu-hartzailearen egungo eta etorkizuneko premiei erantzuteko sortu izanaren ondorio da, eta ez mantenu-hartzaileak orain eskatzen duen mantenerik gabe bizi izan duen aurreko garaietarako<sup>28</sup>. Gainera, ez dira nahastu behar mantenuaren beharizana sortzen den unea eta

<sup>24</sup> Gogoratu, kolazioaren kontzeptua, 807/2023ko AGE 2023ko maiatzaren 24koa (ROJ: 2376/2023), hirugarren zuzenbide-oinarria: «*Kolazioa, aldiz, banaketa-eragiketa bat da ("banaketa-kontuan", KZ 1035. art. dioenez), eta horren ondorioa da dohaintza-hartzaile izan zen senipartedunak, banaketa egiten den unean, aurretik dohaintza bidez jasotako guztia murriztu egingo duela.*» Eta KZ 1041. art.: «*Ez dira kolaziora bilduko elikagaien, hezkuntzaren eta gaixotasunak sendatzearen gastuak, ezohikoak izan arren, ez eta ikaskuntzakoak ere, ezta ohiturazko opariak ere. Era berean, ez dira hizpidera bilduko gurasoek eta aurrekoek beren seme-alaba edo ondorengoen premia bereziak estaltzeko egindako gastuak, desgaitasun-egoerak hala eskatuta.*»

<sup>25</sup> CUENA CASAS, Matilde, «Título VI: De los alimentos entre parientes», BERCOVITZ RODRÍGUEZ-CANO, Rodrigoren, *Comentarios al Código Civil*, Tirant lo Blanch, Valentzia, 2013, 1436. orrialdea.

<sup>26</sup> Euskeraz, «*ez da iraganean bizi*».

<sup>27</sup> 639/2021 Ourenseko PAren epaia 2021eko abenduaren 30ekoa (ROJ: 899/2021), hirugarren zuzenbide-oinarria

<sup>28</sup> 214/2012 Tarragonako PAren epaia 2012ko ekainaren 1ekoa (ROJ: 810/2012): «*...Hain zuzen ere, bai Kode Zibilarren 148. artikulua bai KFren 262. artikulua in praeteritum non vivitur doktrinari jarraitzen diote, hau da, mantenua demanda aurkeztu zenetik (2001eko iraila) baino ezin da kondenatu, mantenua mantenu-hartzailearen egungo eta etorkizuneko beharizanak asetzeko pentsatuta baitaude, eta ez mantenu-hartzaileak orain eskatzen dituen mantenerik gabe bizi izan duen garai hartako beharizanetarako.*»

mantenuaren galdagarritasun-unea<sup>29</sup>; izan ere, KZ 148. artikuluari men eginez, mantenua emateko betebeharra galdagarria da mantenua jasotzeko eskubidea duen pertsonak mantenua behar duenetik, bizirik irauteko, baina ez da mantenua ordainduko demanda jartzen den datatik baino.

Beraz, laburbilduz, ahaideen arteko mantenuaren ezaugarriak hurrengoak dira: txit pertsonala, xedaezina, elkarrekikoa, preskribaezina, erlatiboa eta aldakorra, doakoa, eta atzeraeragin eza. Gainera, nahiz eta hurrengo ataletan gehiago sakonduko dugun, behar-beharrezkoa da aipatzea KZ 146. artikulua araberako<sup>30</sup>, ahaideen arteko mantenua mantenu-hartzailearen beharrezkoaren arabera eta mantenu-emailearen baliabide nahikotasunaren arabera dela.

### 3.2) EDUKIA

Mantenu-prestazioaren edo betebeharraren edukia Kode Zibilaren 142. artikuluan jasotzen da eta horren arabera, mantenuaren barnean elikagaiak, gelak, arropak, osasun-laguntzak, hezkuntza nahiz prestakuntza eta haurdunaldi- nahiz erditze-gastuak. Hala ere, komenigarria eta guztiz beharrezkoa da manuak ezarritako mantenuaren edukian gehiago sakontzea, hots, artikulua zerrendatutako edukiak sakonki aztertzea.

Hasteko, KZ 142. artikulua araututako mantenuaren barnean, lehendabizi, elikagaiak (“sustento”) sartzen dira. Elikagaien edukiaren barne, edaria eta janariak gain, beharrezkoa denean, garraio-gastuak, baita poltsikokoak eta aisialdikoak ere sartzen dira, batez ere neurrizkoak badira eta erabilerekin bat badatoz<sup>31</sup>.

Bigarrenik, KZ 142. artikulua logelarako ezinbestekoa dena mantenu-betebeharraren barne hartzen du. Horren barne, bizitzeko leku egoki batez gain, dagokion garbiketa, eta duintasunez antolatze behar diren altzariak eta tresnak ere sartu behar dira. Horrez gain, “gelarako ezinbestekoa” den horretan, argi, telefono eta gasaren gastuak ere sartu behar dira,

<sup>29</sup> 73/2011 Cadizeko PAren epaia 2011ko ekainaren 23koa (ROJ: 489/2011), lehenengo zuzenbide-oinarria

<sup>30</sup> KZ 146. art. «*Mantenuaren zenbatekoa izan behar da, mantenua nork eman eta horrek dituen ondasun edo baliabideen arabera, eta mantenu hori nork jaso eta horrek dituen beharrezkoaren arabera*».

<sup>31</sup> ROGEL VIDE, Carlos. *Alimentos y auxilios necesarios para la vida*, Reus, Madril, 2012, 17. orrialdea.

baita urarenak ere<sup>32</sup>. Azkenik, komunitate-gastuak eta hala badagokio, zerga-gastuak ere sartu behar dira<sup>33</sup>.

KZ 142. artikulua aipatzen duen hurrengo elementua “jantzeko” ezinbestekoa den guztia daukagu. Honen barruan, arropa arruntez gain, uniformeak, eskolako eta kiroleko arropak eta lehen jaunartze eta ezkontzako jantziak ere sar daitezke<sup>34</sup>.

Mediku-laguntzari dagokionez, Gizarte Segurantzak edo aseguru pribatuak beste moduren batean estaltzen ez dutenean, gastu medikoak, ospitalekoak eta hala badagokio, ambulanzietakoak barne hartzen dute. Aldi berean, 233/2005eko Cantabriako PAK emandako epaiak ideia bera islatzen du, hain zuzen; izan ere, epaiaren gertakariei eutsiz, Gizarte Segurantzak estaltzen ez zituen osasun-gastuen eta gastu medikoen kostuaren erdia aitari ezarri behar zitzaiola adierazi zen, beraz, aita horrek osasun-laguntzaren baitan mantenu-betebeharra betetzeari ekin behar zion<sup>35</sup>. Are gehiago, farmazia-gastuak ere badaude honen barruan<sup>36</sup>. Amaitzeko, osasunari dagokionez, hortzetako interbentzioak, protesiak, betaurrekoak eta, errehabilitazio-gastuak sartu behar dira hemen<sup>37</sup>. Esate baterako, 478/2008 Murtziako PAK emandako epaian esan bezala, dentista eta okulista gastu-ohikotzat hartuko dira, beti ere seme-alabaren aparteko premia batetik, aurreikusteko zaila den premia batetik eta zenbateko ekonomiko handi batetik eratorriak ez badira<sup>38</sup>.

KZ 142. artikulua aipatzen duen hurrengo mantenuaren edukitzat formakuntzarako ezinbestekoa den guztia daukagu. Hezkuntza-gastuak (lehen hezkuntza, bigarren hezkuntza edo unibertsitatekoa) eta instrukzio-gastuak (lanbide bat ikasteko edo lanbide-heziketarako beharrezkoak direnak) mantenuaren barne sartzan dira, baldin eta Estatuak ordaintzen ez baditu eta horretarako laguntzarik edo bekarik ez badago<sup>39</sup>. Horrez gain, inmateriala den mantenua ere sartu behar da<sup>40</sup>, horien barne garraio-gastuak, laguntza-eskolak, testuliburuak eta hizkuntzak ikastearen ondoriozko gastuak sartzan dira formakuntzara zuzendutako

<sup>32</sup> ROGEL VIDE, Carlos. *Alimentos y auxilios necesarios para la vida*, Reus, Madril, 2012, 17. orrialdea.

<sup>33</sup> ROGEL VIDE, Carlos. *Alimentos y auxilios necesarios para la vida*, Reus, Madril, 2012, 17. orrialdea.

<sup>34</sup> ROGEL VIDE, Carlos. *Alimentos y auxilios necesarios para la vida*, Reus, Madril, 2012, 17. orrialdea.

<sup>35</sup> 233/2005 Cantabriako PAKaren epaia 2005eko apirilaren 26koa (ROJ: 909/2005), lehenengo zuzenbide-oinarria

<sup>36</sup> ROGEL VIDE, Carlos. *Alimentos y auxilios necesarios para la vida*, Reus, Madril, 2012, 17. orrialdea.

<sup>37</sup> ROGEL VIDE, Carlos. *Alimentos y auxilios necesarios para la vida*, Reus, Madril, 2012, 18. orrialdea.

<sup>38</sup> 147/2008 Murtziako PAKaren epaia 2008ko maiatzaren 9koa (ROJ: 478/2008), hirugarren zuzenbide-oinarria

<sup>39</sup> ROGEL VIDE, Carlos. *Alimentos y auxilios necesarios para la vida*, Reus, Madril, 2012, 18. orrialdea.

<sup>40</sup> PADIAL ALBÁS, Adoración. *La obligación de alimentos entre parientes*, Jose Maria Bosch editor, Bartzelona, 1994, 33. orrialdea.

mantenuaren barnean; hori bai, barnetegi-erregimenean ikasten duten edo erdi-pentsiodun diren mantenu-hartzaileek sortutako gastuak ahaztu gabe.

Hala ere, hezkuntza-gastuei dagokienez, argibide bat egitea komenigarria da. Izan ere, seme-alabatasunaren, guraso-ahalaren eta ezkontzaren ondasun-eraentzaren arloan Kode Zibila erreformatzen duen 11/1981ko maiatzaren 13ko Legearen aurretik, seme-alaba adingabeen hezkuntza-gastuak baino ez zeuden sartuta. Hau da, KZ erreforma horri esker, gaur egungo KZ 142. artikulua bigarren paragrafoak honela dio: “Halaber, mantenu-hartzailea adingabea den bitartean, mantenuak bere barruan hartzen ditu mantenu-hartzaile horren hezkuntza eta haziera; mantenu-hartzailea adin nagusikoa izanik ere, horren heziketa oraindik ez denean bukatu berari egotzi ezin zaion arrazoiaren ondorioz, heziketa horren gastuak ere mantenuaren barruan sartzen dira”. Beraz, adinez nagusi izan ondoren, beharrezkoa da mantenu-hartzailearen portaeraren balorazioa egitea, ikasketak amaitzeko egindako ahaleginean zentratuta. Ahalegina eta lortutako emaitzak dira ondorio horietarako kontuan hartu behar diren irizpideak<sup>41</sup>. 603/2015eko AGEN<sup>42</sup> hau adierazi zuen epaileak: «KZ 142. artikulua arabera, adin nagusiko seme-alabei mantenua ordaindu behar zaie, haien prestakuntzak irauten duen bitartean, eta mantenua luzatzea ezin zaie utzikeriagatik edo aprobetxamendurik ezagatik egotzi».

KZ 142. artikuluaekin bat etorriz, adierazi du seme-alaba adindunei mantenua ordaindu behar zaiela, euren prestakuntzak irauten duen bitartean, eta mantenua luzatzea ezin zaiela egotzi, utzikeriaz edo aprobetxamendurik ezagatik.

Mantenuaren barnean dagoen formakuntza edo prestakuntzarekin amaitzeko, auzitegiek gastu honi ematen dioten interpretazioa aztertu behar da, KZ 142. artikulua aipatutakoatik haratago doana. Hau da, ugariak dira epaileek formakuntza eta prestakuntza-gastuen inguruan emandako epaiak. Esate baterako, gidatzeko-baimenari dagokionez, aparteko eta beharrezkoa ez den gastutzat hartzen da. Beraz, beharrezkoa ez den

---

<sup>41</sup> CUENA CASAS, Matilde, “Título VI: De los alimentos entre parientes”, BERCOVITZ RODRÍGUEZ-CANO, Rodrigoren, *Comentarios al Código Civil*, Tirant lo Blanch, Valentzia, 2013, 1451. orrialdea.

<sup>42</sup> 603/2015 AGE 2015eko urriaren 28koa (ROJ: 4439/2015), bigarren zuzenbide-oinarria

ezohiko gastua denez, ez zaie bi gurasoei gidatzeko-baimena ordaintzera behartuko ez badute nahi<sup>43</sup>.

Beste adibide erakusgarritzat abiazio-pilotuari buruzko ikasketen gastua daukagu. 10/2013ko Lleidako APk emandako epai beraren arabera<sup>44</sup>, semeak Salamancan 72.000€-ko kostua duen pilotu ikasketak egin nahi zituen, eta horiek badirudi, lanbide-jarduerara bideratutako goi-mailako ikasketak direla. Horrek esan nahi du mantenu arrunten barruan sartzen direla; hala ere, ikasketa mota dela eta, eta horren kostu handia dela eta, ohikoa denetik aldentzen den gastua da, gurasoen estatusaren eta maila ekonomikoaren arabera dena. Horiek ez dira ohiko unibertsitate-ikasketak, baizik eta ohikoa dena gainditzen dute; sarrera handiak dituzten familientzat eskuragarriak izan daitezkeen gastuak dira, edo maila ertaineko familientzat eskuragarri izan daitezkeenak, baina soilik zorpetzea erabakitzen badute. Beraz, prestakuntza mota horren ezaugarri bereziengatik, kostua bere gain hartu behar da, baldin eta gurasoak horretarako baimena ematen badu. Kasu honetan, aitak ez zuen horretarako baimenik eman, bere egoera ekonomikoak ez ziolako dirutza hori ordaintzea ahalbidetzen; eta beraz, gastu hori ezin zaio gurasoari ezarri.

Beste egoera bat daukagu 539/2002ko Valentziako PAk emandako epaia mahai gainean jarrita, adin nagusia zen seme batek bere aitari Unibertsitate Politeknikoaren gastua erreklamatu zion baina epaiak hura ezeztatu zion; izan ere, seme hori beharrian egoeran ez zegoela ulertu zen. Erabaki hura arrazoi hauetan oinarrituta egon zen: semeak 1995etik eta 1999ra bitartean lan-munduan sartu zen; lanbide-heziketako goi-mailako titulua zuen; eta urte horretan, hots, 2002ko abenduan 27 urte beteko zituen. Beraz, Valentziako PAk zioen moduan, Unibertsitate Politeknikoan sartzeko erabakia laudagarria bazen ere, modernoa den eta aukeraz beteriko gizarte baten barruan, ez zen premiazkotzat jo daitekeen ezta mantenu-prestazio bat merezi duen egoera<sup>45</sup>.

<sup>43</sup> 10/2013ko Lleidako PAren epaia 2013ko urtarrilaren 24koa (ROJ: 63/2013): «*Jakina, ezohiko gastua da, ez da beharrezkoa, eta, gaur egungo gizartean, seme-alabek adin-nagusitasunera iritsitakoan gidabaimena lortzea ohikoa edo ez hain ohikoa bihurtu da. Hala ere, horren inguruan nolabaiteko praktika edo erabilera soziala egon arren, gurasoek ez dute nahitaez kostua beren gain hartzen, seme-alabek ere hartzen baitute beren gain, beren aurrezkien kargura edo beren lanarekin lortutako diru-sarrerekin, gurasoek sustatu eta estimulatuta prestakuntza-helburuarekin (lan-munduarekin harremanak hastea, gauzen balioa eta kostua inbutatzea...).* Beraz, beharrezkoa ez den ezohiko gastua da, eta bi gurasoek onartu behar dute».

<sup>44</sup> 10/2013ko Lleidako PAk emandako epaia (2º Saila), 2013ko urtarrilaren 24koa (573/2011. errekurtsoa), 1. zuzenbide-oinarria.

<sup>45</sup> 539/2002ko Valentziako PAren epaia 2002ko urriaren 22koa (ROJ: 5787/2002), bigarren zuzenbide-oinarria: «*Y ello por cuanto el recurrente accedió al mundo laboral entre los años 1995 hasta 1999, y tiene un título de grado superior en formación profesional, en diciembre del presente año cumplirá 27 años de edad, de modo que*

321/2002 Cadizko Probintzia Auzitegiak emandako epaiaren arabera, gurasoek beren adin nagusiak diren seme-alabenganako formakuntza-gastuak ordaindu behar izatearen atzean ez da bilatzen, inola ere, gurasoak bizitza osorako bere alabak egin nahi dituen ikastaroak ordaindu behar izatea; izan ere, horrek bere bizitza modu independentean ez garatzera bultzatuko luke. Baina, aldi berean, epai horretan, alabak hogeitaz zituen, eta lanbiderik zuen ezta diru-sarrerarik lortu zuen frogarik ez zegoen; eta gainera, arrazoizkotzat hartu zen adin horrekin eta lan-merkatuara sartu ahal izateko, bere burua prestatzen eta ikasten jarraitu behar izatea. Beraz, epaileak bidezkotzat hartu zuen aitak bere alabari mantenua ematen jarraitu behar izatea, kontuan hartuta aitaren egoera ekonomikoak ordainketa ahalbidetzen zuela<sup>46</sup>.

Mantenu-betebeharraren edo eskubidearen edukiaren hedapenarekin amaitzeko, KZ 142. artikulua haurdunaldiko eta erditzeko gastuak ere aipatzen ditu. Hau ere martxoaren 13ko 11/1981eko Legeak ekarritako Kode Zibilaren erreformaren ondorengo berrikuntza izan zen. Haurdunaldi- eta erditze-gastuak ahaideen arteko mantenu-eskubidearen barne sartzea errepikakorra dirudi aurretik aipatutako «laguntza medikoaren» aurrean, horren zehaztapena baino ez litzateke. Gastu hauen inkorporazioaren helburua ama ezkongabearen haurdunaldi- eta erditze-gastuak bai bere gurasoen («laguntza medikoaren» barne doana ere) eta bai jaiotzean dagoen seme-alaba horren aitaren gain hartzea izan zen. Izan ere, KZ 143. artikulua ez duenez haurdun dagoen amak haurraren aitari ama moduan mantenua eskatzeko aukerarik aurreikusten, ume hori bere gurasoek berekiko duten mantenua aurretik ezarri barik jaioko litzateke<sup>47</sup>.

Amaitzeko, nahiz eta KZ 142. artikulua ez aipatu, doktrinaren gehiengoak, hileta-gastuak mantenuaren barne hartzen du<sup>48</sup>. KZ 1894. artikulua bigarren paragrafoak, hitzez hitz, hurrengo dio: «(...) *Pertsonaren kalitatearen eta herriko usadioen arabera hileta-gastuak ordaindu beharko dituzte, hildakoak ondasunik utzi ez arren, bizirik egon*

---

*su decisión de acceder hoy a la Universidad Politécnica si bien es loable no se encuentran, hoy por hoy, y dentro de una sociedad moderna y de oportunidades, en una situación que se pueda definir de necesidad, que le pueda hacer acreedor a una prestación alimentaria; lo contrario, como dice la sentencia de fecha 1 de abril de 2001 del tribunal Supremo sería tanto como favorecer una situación pasiva de lucha por la vida, que podría llegar a suponer un "parasitismo social". En consecuencia procede la desestimación del recurso».*

<sup>46</sup> 321/2002ko Cadizko PAren epaia 2002ko irailaren 20koa (ROJ: 2371/2002), lehenengo zuzenbide-oinarria

<sup>47</sup> JIMÉNEZ MUÑOZ, Francisco Javier. «La regulación española de la obligación legal de alimentos entre parientes», *Anuario de Derecho Civil*. ISSN 0210-301X. 59 Bol., 2. zenb., 2006, 30. orrialdea.

<sup>48</sup> ROGEL VIDE, Carlos. *Alimentos y auxilios necesarios para la vida*, Reus, Madril, 2012, 20. orrialdea.



*bitartean pertsona hori mantentzeko betebeharra izan zutenek*”. Gainera, *hileta-gastu horien barne hurrengoak daude: gorpuaren lekualdaketa, eskelak, hiletak, hilobiak, ehorzketak edo errausketa gastuak*»<sup>49</sup>.

### 3.3) SUBJEKTUAK

Atal honetan, ahaideen arteko mantenu-betebeharraren baitan Kode Zibilak aurreikusitako ahaideak edo subjektuak azalduko ditugu. KZ 143. artikulua zera dio: *«Elkarri mantenua eman behar diote, aurreko artikuluan adierazitako hedadura osoan: 1. Ezkontideek. 2. Aurreko eta ondorengoek»*. Jarraian, arauak honako hau gehitzen du: *«Neba-arrebek elkarri zor dizkiote bizitzeko beharrezkoak diren laguntzak bakarrik, eurontzat laguntza horiek nahitaezkoak direnean mantenu-hartzaileari egotzi ezin zaion arrazoiaren ondorioz; laguntza horiek hedatuko dira, hala denean, neba-arrebon hezkuntzarako beharrezkoak diren laguntzetara ere.»*.

Beraz, ROGEL VIDEk dioen moduan, nahiz eta Kode Zibilak «senideen arteko» mantenuari erreferentzia egin, izendapena ez da egokia, ahaide guztiek ez dutelako mantenua galdatzeko eskubiderik ezta emateko betebeharririk, eta, gainera, teknikoki ahaide ez den ezkontidea ere aipatzen da. Ondorioz, manuak aipatzen dituenak baino ez dira ahaide behartuak; hau da, KZ 142. artikulua mantenu-betebeharretik kanpo geratzen dira alboko lerrokoak, neba-arrebak izan ezik, hots, osaba-izebek, ilobek eta lehengusu-lehengusinek ez dute mantenu-eskubiderik elkarren artean. Esan bezala, elkarrekiko betebeharra da, eta beharrian-egoeran dagoen senideari mantenua emateko betebeharra duenak eskubidea izango du mantenua eskatzeko ahaide horri ere, legezko baldintzak betetzen badira. Mantenu-hartzaile oro lagundu dioten subjektu berberen mantenu-emate izan daiteke, baina ez lagundu diotelako, baizik eta legeak hala ezartzen duelako KZ 143. artikuluan, eta 144. artikuluan adierazitako ordenaren arabera<sup>50</sup>.

Laburbilduz, orduan, gurasoek adin nagusiak diren seme-alabekiko mantenu-betebeharra daukate, seme-alabak gurasoen ondorengoak diren heinean, eta

<sup>49</sup> ROGEL VIDE, Carlos. *Alimentos y auxilios necesarios para la vida*, Reus, Madril, 2012, 20. orrialdea.

<sup>50</sup> CUENTAS CASAS, Matilde, “Título VI: De los alimentos entre parientes”, BERCOVITZ RODRÍGUEZ-CANO, Rodrigoren, *Comentarios al Código Civil*, Tirant lo Blanch, Valentzia, 2013, 1458. orrialdea.

ondorengoak KZ 143.2. artikuluan aurreikusita daude mantenu-hartzaile nahiz mantenu-emaile moduan.

### **3.4) AHAIDEEN ARTEKO MANTENUAREN AZKENTZEA**

Atal honetan, ahaideen arteko mantenu-betebeharra noiz arte irauten duen azaltzeari ekingo diogu, izan ere, betebehar honen denbora muga azaltzea oso beharrezkoa baita. Lehendabizi, komenigarria litzateke ahaideen arteko mantenu betebeharraren legezko azkentze kausak azaltzea.

KZ 150 eta 152. artikuluek, hitzez hitz, hurrengo azkentze kausak jasotzen dituzte: mantenu-emailea hiltzean, nahiz eta mantenu hori epai irmoa betetzeko eman (KZ 150. art.); mantenu-hartzailea hiltzen denean (KZ 152.1. art.); mantenua emateko betebeharra duenaren ondarea urritu denean, bere beharrizanak asetu ezin arte (KZ 152.2. art.); mantenu-hartzaileak lanbide, lanpostu edo industria batean jardun dezakeenean, edo xede bat eskuratu duenean edo, mantenu barik bizirik irauteko moduan zorionez ondarez hobetu denean (KZ 152.3. art.); mantenu-hartzaileak, nahitaezko jaraunslea izanda edo ez, jaraungabetzea eragiten duen faltaren bat egiten duenean (KZ 152.4. art.); mantenu-hartzailea mantenua emateko betebeharra duenaren ondorengo denean, eta mantenuaren behar hori jokabide txarraren ondorioz edo lanerako aplikazio faltaren ondorioz sortu denean, arrazoi horrek iraun bitartean (KZ 152.5. art.).

## **4) SEME-ALABA ADIN NAGUSIEN MANTENU-ESKUBIDEA**

### **4.1) BETEKIZUNAK, ORO HAR**

Atal honetan, adin nagusiko seme-alaben alde mantenu-eskubidea sortzeko betekizunak aztertzeari ekingo diogu. Oro har, ahaideen mantenu-betebeharra sortzeko bete beharreko baldintzak mantenu-hartzailearen beharrizana eta mantenu-emailearen ondare-nahikotasuna dira<sup>51</sup>.

---

<sup>51</sup> JIMÉNEZ MUÑOZ, Francisco Javier. «La regulación española de la obligación legal de alimentos entre parientes», *Anuario de Derecho Civil*, 2. zenb., 2006, 23. orrialdea. [chrome-extension://efaidnbnmnnibpcajpcglclefindmkaj/https://www.boe.es/biblioteca\\_juridica/anuarios\\_derecho/abrir\\_pdf.php?id=ANU-C-2006-20074300792](chrome-extension://efaidnbnmnnibpcajpcglclefindmkaj/https://www.boe.es/biblioteca_juridica/anuarios_derecho/abrir_pdf.php?id=ANU-C-2006-20074300792)

Lehenengo betekizuna, beraz, mantenu-hartzailearen beharrizan egoera da. Ahaideen arteko mantenua erreklamatzeko kausa beti bera da, beharrizana. Adin nagusiko seme-alaben kasuan, LACRUZen hitzetan, bi modalitate bereizten dira, izatez, gurasoen mantenu-betebeharraren baitan<sup>52</sup>: batetik, semea edo alaba ikasten ari den bitartean mantentzeko betebeharra, eta, bestetik, bizitzako gorabeherak seme edo alabarengan eragindako premia-egoeraren ondoriozko mantenu betebeharra, bere erruagatik izan ez dena. Beraz, batetik, hezkuntzaren helburua dago, eta bestetik, bizitzarako ezinbestekoa den babesa dago, seme-alabaren premia larriei erantzuteko<sup>53</sup>. Haurra adin-nagusitasunera iristen denean, autonomia eta nahikotasun ekonomikorik ez izatea gerta litekenez, gurasoek mantenu-obligazioa izaten jarraitzen dute, autonomia hori lortzeko beharrezkoa den prestakuntza eta ikaskuntza lortzeko, hain zuzen<sup>54</sup>.

Mantenu-hartzailearen premia-egoera hori bizirauteko baliabide nahikorik ez izateak eragin behar du, bere baliabide pertsonalek ez baitituzte bere beharrizan indibidualak asetzen. Horrenbestez, beharrizan-egoera bat dagoela frogatzeko, ez da nahikoa gaur egun baliabide edo baliabide ekonomikorik ez izatea; horrez gain, baliabide horiek lortzeko ezintasuna frogatu behar da. Beraz, horregatik, epaileak, mantenerako premia-egoerarik dagoen ala ez erabakitzeko orduan, kontuan hartu behar du hala mantenu-hartzaileak bizirauteko baliabide ekonomikorik duen nola horiek lortzeko benetako aukerarik duen<sup>55</sup>. Honen adibide 233/2015 A Coruñako Probintzia Auzitegiaren epaia dugu. Kasu honetan, epaileak zera zioen: «*adin nagusiko seme-alabek, oraingoz, ez dute ez enplegurik, ez diru-sarrera propiorik beren independentzia ekonomikorako, eta nahiz eta amaitu zituzten edo prestakuntza akademikoa amaitzeaz duten, apelatutako epaian beren alde ezarritako pentsioa jasotzeko eskubidea dute*»<sup>56</sup>. Beraz, baliabide ekonomikoak lortzeko ezintasuna kontuan hartzen da erabakia hartzerakoan.

<sup>52</sup> Adingabeen modalitatea ere badago, baina hori ez da lan honen objektua.

<sup>53</sup> LACRUZ MANTECÓN, Miguel Luis. *Convivencia de padres e hijos mayores de edad*, Reus argitaletxea, Madril, 2016, 39. orrialdea. <https://elibro-net.ehu.idm.oclc.org/es/ereader/ehu/100490>

<sup>54</sup> LACRUZ MANTECÓN, Miguel Luis. *Convivencia de padres e hijos mayores de edad*, Reus argitaletxea, Madril, 2016, 37. orrialdea. <https://elibro-net.ehu.idm.oclc.org/es/ereader/ehu/100490>

<sup>55</sup> LACRUZ MANTECÓN, Miguel Luis. *Convivencia de padres e hijos mayores de edad*, Reus argitaletxea, Madril, 2016, 40. orrialdea. <https://elibro-net.ehu.idm.oclc.org/es/ereader/ehu/100490>

<sup>56</sup> 233/2015 A Coruñako PAREN epaia 2015eko uztailaren 10ekoa (ROJ: 1919/2015), hirugarren zuzenbide-oinarria

Gainera, adin nagusiko seme-alaba izanda bizitza independentea izateko baliabide ekonomikoak lortzeko ezintasun edo gaitasunaren inguruan PÁRAMO DE SANTIAGOK adierazitakoa mahai gainean jartzea komenigarria da ere bai. Bere hitzen arabera, gurasoen eta seme-alaben arteko harremanen eremuan, adin nagusiak diren seme-alabek beren gurasoetako batek beren premiei aurre egiteko behar duten zenbatekoa lortzera bideratutako gatazkak sortzen dira. Pentsa dezagun oposizioak egiten dituzten edo oposizioak amaitzeko urte asko behar dituzten adin nagusiko seme-alaben kasuan edo ikasketak amaitu arren lan-egonkortasunik ez duten seme-alaben kasuan, edo ikasten ari diren adin nagusiko seme-alaben kasuan. Guzti hau Espainiako ekonomian azaleratzen da, langabezia-tasa altuak baitaude, baita espainiarren emigrazioan ere, non unibertsitate-ikasketa batzuek ez duten lana aurkitzeko bermerik ematen. Ohikoak dira ikasketak amaituta dituzten eta lana aurkitzeko gai ez diren 30 urtetik gorako pertsonak, edo independizatu eta gurasoen etxera itzuli behar duten gazteak, jada ez dutelako alokairua ordaintzeko diru nahikorik irabazten<sup>57</sup>. Beraz, baldintza guztiak kontuan izanda mantenu-hartzailearen, hots, adin nagusiko seme-alabaren beharrian egoera baloratuko da.

Gainera, adin nagusiak diren seme-alabek gurasoengatik matenua jasotzeko, bere bizi-baldintzak behar bezala egiaztatu behar dira; izan ere, bere eskubideak osotasunean egikaritzeko gai den adin nagusiko pertsona bat, bizitzan defendatzeko gai dela uste arren, seme-alaba behar sozial eta ekonomiko egoeran jarriko luketen inguruabarrak gerta daitezke. Hortik ondoriozta daitekeenez, seme-alaba nagusiei matenua benetako beharrian-egoeretan soilik eskatu ahal da<sup>58</sup>.

Bigarren betekizuna, gurasoek mantenu-emaile izateko gaitasun ekonomikoa izatea da. Mantenu-emailearen ondare-nahikotasuna edo gaitasun ekonomikoa zehazteko, haren aktiboa eta pasiboa hartuko dira kontuan. Aktiboan kontuan hartu beharko dira, halaber, ondare-kapitala, errentak, fruituak eta sarrerak; eta pasiboan, zorrak, eta, bereziki, bere beharrianak eta familiaren beharrianak, horiei erantzun behar baitie lehenik<sup>59</sup>.

---

<sup>57</sup> PÁRAMO DE SANTIAGO, Casto. «Derecho de alimentos: necesidad de quien pide, y el estado de fortuna de quien los da (Comentario a la SAP de Madrid, Sección 14.ª, de 21 de julio de 2014)», *CEFLegal. Revista práctica De Derecho*, 169. zenb., 2015, 102. orrialdea. <https://revistas.cef.udima.es/index.php/ceflegal/article/view/11151>

<sup>58</sup> LACRUZ MANTECÓN, Miguel Luis. *Convivencia de padres e hijos mayores de edad*, Reus argitaletxea, Madril, 2016, 37. orrialdea. <https://elibro-net.ehu.idm.oclc.org/es/ereader/eHu/100490>

<sup>59</sup> JIMÉNEZ MUÑOZ, Francisco Javier. «La regulación española de la obligación legal de alimentos entre parientes», *Anuario de Derecho Civil*, 2. zenb., 2006, 25. orrialdea.

Mantenu-emailearen lana ere kontuan hartu beharreko elementua izango da, nahiz eta lana ez den mantenua emateko bitartekoak lortzeko bide bakarra eta lan egiteko obligazio juridikorik ez dagoen<sup>60</sup>.

703/2015 AGEk agerian uzten du ondare-nahikotasuna nahitaezko betekizun bat dela<sup>61</sup>. Epai honetan, aita batek bere adin nagusiko semearekiko zuen mantenu prestazioa epe mugatu baterako eten zen, nahikoa ondarrerik ez zuelako, hots, kaudimengabezia zegoelako. Hobeto uler dadin, konkretuki, aita horren egoera ekonomikoa, honelakoa zen: langabezia-egoeran zegoen eta langabeziako aldi luzeak Enpleguaren Institutu Nazionalaren ziurtagirien bidez egiaztatu zituen; gainera, curriculum hainbat tokitara bidali arren ezin izan zuen enplegu egonkorrik lortu, eta horregatik, une horretan ez zuen inolako lanik; ez zitzaion hileko 426 euroko laguntza jasotzeko eskubidea aitortu, seme-alabek NAN zenbakia eman ez ziotelako; bere gurasoei, anai-arrebei eta seme-alaben osaba-izebei esker bizi zen; hipoteka ordaintzeko baliabiderik ez zuelako bere etxebizitza galdu zuen; 56,80 euroko langabezia-prestazioa baino ez zuen jasotzen, eta 900 euro inguruko zorra zeukan RCI Banque S.A. erakundearekin. Beraz, inguruabar hauek kontuan izanda, epaileak aitaren mantenu betebeharra eraginkortasun gabe utzi zuen, aita semearekiko betebeharrari erantzuteko biziraupen-baliabide nahikoak izan arte, lanera itzuli arte edo betebeharrari erantzuteko diru-sarrerara nahikoak jaso arte.

Beraz, guasoaren ondare-nahikotasuna baldintza garrantzitsua dela agerian geratu da, ondarrerik ez izateak, une baterako obligazio hori etetera edo moldatzera arte. Aldi berean, adin nagusiko seme-alaba beharrian egoeran egon behar du, egoera hori, esan bezala, kasuaren arabera aztertuko delarik.

## **4.2) DIBORTZIO EDO BANAKETA EGOEREN BEREZITASUNAK**

Askotan, adin nagusiak diren seme-alaben mantenuaren inguruko auziak gurasoen harremana krisialdi egoeran dagoenean azalarazten dira. Hau da, gurasoak elkarrekin bizi direnean, ez da normalean arazorik sortzen seme-alaben mantenuaren inguruan eta, oro har,

<sup>60</sup>JIMÉNEZ MUÑOZ, Francisco Javier. «La regulación española de la obligación legal de alimentos entre parientes», *Anuario de Derecho Civil*, 2. zenb., 2006, 25. orrialdea.

<sup>61</sup> 703/2014 AGE 2015eko urtarrilaren 19koa (ROJ: 427/2015)

adin nagusitasuna lortzen dutenean, independentzia ekonomikoa lortu arte familia-etxebizitzan bizitzen jarraitzea onartu egiten da. Arazoak sor daitezke, ordea, gurasoak banatu edo dibortziazten direnean eta seme-alabak gurasoetako batekin bizi direnean. Adin txikiak diren bitartean, zaintza ez duen gurasoak mantenu pentsioa ordaindu beharko du, KZ 110. artikulua inposatzen duen betebeharrari jarraiki<sup>62</sup>. Seme-alaba horiek adin nagusiak bihurtzen direnean, ordea, pentsioa ordaintzera behartuta dagoen gurasoa, betebeharrari hori saihesten saiatu daiteke. Egoera horietan KZ 142. artikuluan eta hurrengoetan arautzen den mantenu-betebeharra aplikagarria den aztertu beharko da.

Beraz, atal honetan, gurasoen dibortzioa edo banaketa gertatzean adin nagusiak diren seme-alabekiko mantenu-betebeharraren aurrean auzitegiek emandako erantzunak aztertuko ditugu.

Hasteko, 44/2023ko Salamancako PAk emandako epaiak berresten du adinez nagusi bati mantenua emateak KZ 142. artikuluan duela oinarri juridikoa. Betebeharra sortzeko erabakigarria da semeak edo alabak bizimodu independentea egitea ahalbidetuko dien diru-sarrera propiorik ez izatea. Honez gain, adin nagusiko baten aurrean egonda, KZ 145. artikulua<sup>63</sup> aplikatu behar da. Artikulu horren arabera, mantenua emateko betebeharra bi pertsonak edo gehiagok dutenean (gure kasuan, guraso biak), pentsioaren ordainketa haien artean banatuko da, haien ondasunen edo baliabide ekonomikoen arabera. Aldi berean, KZ 93. artikulua<sup>64</sup> arabera, «*epaileak, edozein kasutan, guraso bakoitzak mantenua ordaintzeko egin beharreko ekarpena zehaztuko du, eta neurri egokiak hartuko ditu prestazioak eragingarriak izan daitezten eta seme-alaben unean uneko inguruabar ekonomiko eta beharrezanetara egoki daitezten*»; beraz, guraso biak daude behartuta mantenua ematera eta inguruabarrak hartuko dira kontuan (KZ 146. art.)<sup>64</sup>.

<sup>62</sup> KZ 110. art.: «*Aitak eta amak, nahiz eta guras-ahalik izan ez, betebeharra dute, seme-alaba adingabeak zaindu eta eurei mantenua emateko*».

<sup>63</sup> KZ 145. art.: «*Pertsona batek baino gehiagok mantenua emateko betebeharra dutenean, pentsioaren ordainketa euren artean banatuko da bakoitzak dituen ondasunen arabera. Nolanahi ere, presako beharrezan izanez gero, eta inguruabar berezien ondorioz, epaileak pertsona horietatik bat behartu dezake mantenua behin-behinean ematera; hala ere, mantenua behin-behinean eman duenak gainerako betebeharrakoei eska diezaietke eurei dagokien zatia. Bi mantenu-hartzailek edo gehiagok aldi berean mantenua erreklamatzeko diotenean mantenua emateko legezko betebeharra duen pertsona berberari, pertsona horrek ez badu guztiak mantentzeko beste aberastasunik, aurreko artikuluan ezarritako hurrenkera beteko da; zernahi gisaz, ezkontidea eta guraso-ahalaren menpe dauden seme-alabak badira aldi berean pilotzen diren mantenu-hartzaileak, semeak edo alabak izango du lehentasuna, gurasoaren aurretik*».

<sup>64</sup> 44/2023ko Salamancako PAren epaia 2023ko otsailaren 1ekoa (ROJ: 28/2023), hirugarren zuzenbide-oinarria

Guraso biak mantenua ematera behartua daude, baina gurasoen dibortzio edo banaketa dela eta, mantenu hori emateko era aldatzen da, mantenua pentsio bat ordainduz ematen delarik. Adin nagusikoak diren seme-alaben mantenu-pentsioaren oinarria gurasoak duen beharrizan egoeran dagoen seme-alabaren bizitza babesteko betebeharrean dago; hala ere, esan bezala, premia-elementua kontzeptu erlatiboa eta zehaztugabea da, eta epaileak baloratu beharko du kasu zehatza kontuan hartuta, hau da, mantenu-hartzailearen inguruabar indibidualak aztertuta. Premiaren baldintza bete behar bada ere, mantenu-hartzailea ez du zertan pobrezia-egoeran egon pentsioa jasotzeko, izan ere, esan bezala, askotan mantenu-pentsioa ematen da seme-alabak ikasketak egiten jarraitu behar duelako<sup>65</sup>.

Esan beharra dago, gaur egun seme-alabek adin nagusitasunera heltzean gurasoen banantze- edo dibortzio-epaiaren bidez lortutako mantenu-pentsioa jasotzen jarraitu ahal izatea 11/1990eko urriaren 15eko Legeak<sup>66</sup> KZ 93. artikuluan ekarritako aldaketaren ondorio dela<sup>67</sup>. Aldaketa hori ekonomia prozesalari erantzuna eman zion. Erreformaren aurretik, banantze edo dibortzio baten ondorioz mantenua jasotzen zuen seme-alaba adingabea horretaz gabetuta geratzen zen adin nagusitasunera heltzean; hau da, KZ 93. artikuluan seme-alaba adingabeak soilik aipatzen zituen, eta mantenu-pentsioa automatikoki iraungitzen zen 18 urte betetakoan, mantenu-hartzaileak diru-sarrera propioak izanda edo ez. Beraz, kasu horietan, adin nagusitasunera heldutako seme-alabak baliabiderik ez bazuen edo baliabide nahikorik ez bazuen, ezkontza-hausteaz bestelako prozesu berri bati hasiera eman behar zion, eta mantenua bi gurasoei demanda jarriz erreklamatu behar zuen. Aldiz, KZ 93. artikularen erreforma horri esker, gaur egun, epai berean adin nagusiak diren seme-alabekiko mantenu-pentsioa ezarri daiteke<sup>68</sup>.

---

<sup>65</sup> AZNAR DOMINGO, Antonio eta GANDARA TOMÉ, Cristian. «Controversias jurídicas de la pensión de alimentos y la pensión compensatoria en el Derecho Civil», 2021, *ElDerecho.com Noticias Jurídicas y Actualidad, Lefebvre*, <https://elderecho.com/controversias-juridicas-de-la-pension-de-alimentos-y-la-pension-compensatoria-en-el-der-echo-civil#659d75a792323-n>.

<sup>66</sup> 11/1990 Legea, urriaren 15koa, Kode Zibilarren erreformari buruzkoa, sexuagatiko bereizkeriarik ezaren printzipioa aplikatuz.

<sup>67</sup> Lege horrek erreformatutako KZ 93. artikularen bigarren paragrafoa: «*Familiaren egoitzan bizi badira seme-alaba adin nagusiko edo emantzipatuak, eta ez badute berezko dirusarrerarik, epaileak ebazpenean bertan finkatuko du kode honen 142. artikularekin eta ondorengoekin bat etorritik seme-alaboi zor zaien mantenua*».

<sup>68</sup> AZNAR DOMINGO, Antonio eta GANDARA TOMÉ, Cristian. «Controversias jurídicas de la pensión de alimentos y la pensión compensatoria en el Derecho Civil», 2021, *ElDerecho.com Noticias Jurídicas y Actualidad, Lefebvre*, <https://elderecho.com/controversias-juridicas-de-la-pension-de-alimentos-y-la-pension-compensatoria-en-el-der-echo-civil#659d75a792323-n>.

### 4.2.1) Gurasoek noiz arte ordaindu beharko dute adin nagusiak diren seme-alabekiko mantenu-pentsioa?

Nahiz eta adin nagusiak diren seme-alabek berekin bizi ez den gurasoengandik mantenu-pentsioa jasotzeko aukera izan, eskubide hori seme-alabaren (mantenu-hartzailea) beharrizan egoerara nahiz gurasoaren (mantenu-emailea) ondare-nahikotasunera egongo da baldintzatuta (KZ 146. art.). Beraz, atal honetan, praktikan seme-alaba adin nagusien mantenu-pentsio hori gurasoek noiz arte ordaindu behar duten aztertuko dugu, horretarako auzitegiek emandako erantzun juridikoak mahaigaineratuz.

Hasteko, legeak ez du ezartzen gurasoengandik mantenua jasotzeko adin maximorik; hots, ez da gurasoen mantenua jasotzera begira adin nagusiak diren seme-alabentzako adin maximorik ezartzen<sup>69</sup>. Hala, 558/2016 AGEk dioen moduan, legeak ez du seme-alaba adin nagusien mantenua azkentzeko adin-mugarik ezartzen, eta, horregatik, kasuaren inguruabarrak eta mantenua aldarrikatzen den garaiko egoera sozioekonomikoa kontuan hartuta, kasuistika handia da gure auzitegietan erantzunak emateko orduan<sup>70</sup>. Hori bai, 4.4. atalean azaldu dugun moduan, KZ 152. artikulua ahaideen arteko mantenuaren azkentze-kausak zerrendatzen ditu; eta beraz, manu horretatik abiatuta, zehazki, adin nagusiak diren seme-alabenganako mantenu-pentsioaren azkentzeak praktikan dituen berezitasunak azaltzeari ekingo diogu, zenbait epai aztertuz. Beraz, bereziki, KZ 152.3., 152.4. eta 152.5. artikuluen inguruan emandako epai ezberdinak aztertuko ditugu.

Lehendabizi, KZ 152.3. artikulua araberak, mantenu-obligazioa amaituko da, adin nagusiko seme-alaba mantenu-hartzaileak ogibide, lanbide edo industria bat gauzatu ahal badu, edo destino bat eskuratu badu, edo aberastu bada, mantenu-pentsiorik behar ez izateraino. Adibidez, 1022/2011ko Pontevedrako PAK emandako epaiak manu horretan oinarritu zuen mantenu-pentsioaren azkentzearen ukapena. Hau da, auzitegiak adierazi zuen mantenu-pentsioaren azkentzea, enpleguaren prekaritatearekin, edo, beste era batera esanda, noizbehinkako lanekin eta objektiboki murriztutako zenbatekoekin guztiz bateraezina zela. Epai horren gertakariei eutsiz, alabak 20 urte zituen, lan-bizitza eskasa eta prekariora zuen,

<sup>69</sup> NIETO MORALES, Concepción. *Los jóvenes del siglo XXI en el contexto de la globalización: de lo académico a las experiencias personales de jóvenes*, Dykinson, Madril, 2016, 45. orrialdea. <http://www.jstor.org/stable/j.ctt1k859gv>

<sup>70</sup> 558/2016 AGE 2016ko irailaren 26koa (ROJ: 4101/2016)



dagoeneko ume bat zuen, eta oraindik bere gurasoaren mende zegoen; izan ere, bere umearen aitak amankomunean zuten umearen gastuetan soilik laguntzen zion, une horretan ez zuen lanik eta gainera, langabezia-prestazioa jasotzeko gutxieneko kotizazio-aldirik ez zuen. Datu horiek agerian utzi zuten alaba horrek ezin zuela bizitza independenterik egin, eta horrek, epaileak zioen moduan, eta adinarekin batera (20 urte), eta horrek aita mantenu-pentsioa ordaintzera behartzen duen<sup>71</sup>.

Hala, hari beretik, 542/2013 Bartzelonako PAk emandako epaia daukagu<sup>72</sup>. Epaia honen arabera, alaba adinez nagusia izateak ez du aita mantenu-betebeharretik salbuesten; izan ere, kasu honetan, alabak titulazio profesionala zuen arren, ez zen arrazoi horregatik onartu aitarengandik jasotzen zuen mantenu-pentsioa galaraztea, ez zelako egiaztatu alabak mantenu-pentsioa behar izaterainoko diru-sarrerarik jaso zuelarik. Eta berez, KZ 152.3. artikulua «*bizirauteko mantenu-pentsioa behar ez izateraino*» baldintza galdatzen du, hots, epaia honek dioen moduan, seme-alabak "askatasun" ekonomikoa lortu arte zabaltzen da gurasoaren mantenu-betebeharra.

233/2015 A Coruñaeko PAk emandako epaiak ere, adin nagusiak diren bi seme-alabek beren aitarengatik mantenu-pentsioaren eztabaidaren aurrean erantzuna ematen du. Kasu horretan, bi seme-alabak adin nagusiak ziren, bata 23 urte zeuzkan eta besteak 26; biak amarekin bizi ziren, irabazpidezko etxebizitzan; eta unibertsitate-ikasketak amaitu zituztenez, biak lan-merkatu sartzeko moduan zeuden, baina une horretan ekonomikoki menpeko ziren. Zalantzarik gabe, aitak ekonomikoki lagundu behar zuen seme-alaben mantenua ordaintzen eta diru hori aitak zituen ondasun edo baliabideen eta seme-alaben beharrezkoen arabera zen (KZ 146. art.). Auzitegiaren esanetan, adin nagusiak diren seme-alabek, familiaren etxebizitzan bizi badira eta independentzia ekonomikorik ez badute, mantenua jasotzeko eskubidea izango dute, KZ 93.2. artikulua arabera, prestazio hori familia-kargatzat hartzen delako oraindik ere. Hori kontuan hartuta, epaia beraren gertakizunetara eutsiz, seme-alabak irabazpidezko etxebizitzan amarekin bizi zirela eta ondorioz, logela-beharrak beteta zeudela egiaztatuta, eta aitak etxe horren hipoteka-maileguaren kuota ordaintzen zuela kontuan izanda, eta oraingoz nahiz eta beren prestakuntza akademikoa amaitu edo amaitzen egon,

<sup>71</sup> 1022/2011ko Pontevedrako PAren epaia 2011ko abenduaren 30ekoa (ROJ: 3346/2011), bigarren zuzenbide-oinarria

<sup>72</sup> 542/2013ko Bartzelonako PAren epaia 2013ko urriaren 24koa (ROJ: 11198/2013), bigarren zuzenbide-oinarria

independentzia ekonomikorako behar zuten enplegurik ezta diru-sarrera propiorik ez zutenez, apelazio-epaian bi seme-alaba adin nagusi horiei beren aitarekiko mantenu-pentsioa jasotzeko eskubidea aitortu zitzaien<sup>73</sup>.

Joera berdinean dihardu 700/2014ko AGEa. Izan ere, adin nagusiko alabari ez zitzaion mantenua ukatu; izan ere, epaiaren arabera, mantenu-prestazioaren betebeharra azkentzeko, lanbide, ofizio edo industria batean aritzeko aukera zehatza eta eraginkorra izan behar da, inguruabarren arabera, eta, gainera, arauen interpretazioa, KZ 3. artikulua<sup>74</sup> ezartzen duenaren arabera egin behar da. Eta beraz, kasua inguruabarren arabera aztertu behar bada, epai horren gertakariak Espainiako gazteen neurri gabeko langabezia eta konkretuki, Kanarietako egoeraren larritasuna kontuan izanda baloratu behar zen. Gainera, alabak formakuntzarako interesa adierazi arren, hots, ileapaindegiko ikastaldiak eta beste ikastaldi batzuk egin arren, ez zuen lan-merkatuan sartzea lortu; are gehiago, bere amarekin bizi zenez eta ez zenez egiaztatu diru-sarrera nahikorik zuenik, mantenua jasotzea aitortu zitzaion. Beraz, egoera horretan, alaba horren baldintzak ikusita eta garai horretako errealitate sozialaren baldintzak ikusita, alaba horrek beharizan ekonomikoa zuela egiaztatu zen eta beraz, bere aitak berarengan zuen mantenu obligazioa mantendu eta aitortu zen, nahiz eta adin nagusikoa izan<sup>75</sup>.

KZ 152.3. artikulua jasotako mantenu-betebeharra azkentzeko kausarekin amaitzeko, egia da ugariak direla adin nagusiak diren seme-alaben independentzia ekonomikoa ez antzemateagatik mantenu-pentsioa azkentzen ez duten epaiak. Horren isla aipatutako epai guztiak dira (233/2011ko Pontevedrako PAK emandakoa, 542/2023ko Bartzelonako PAK emandakoa, 233/2015eko A Coruñako PAK emandakoa eta 700/2014ko AGEa). Hala ere, apirilaren 1eko 169/2022ko Palentziako PAK emandako epaiak mantenu-pentsioaren azkentzearen alde dihardu eta horregatik interesgarria litzateke horren berezitasunak mahai gainean jartzea. Seme horren egoeraren ezaugarriak hauek dira: semeak 26 urte ditu eta besteren kontura lan egiten du 2018tik, etenik gabe, lan egiteari utzi diolarik bakarrik 9 egunez. Gorputz- eta kirol-jardueretako teknikariaren titulazioa du, eta gimnasio batean lan

<sup>73</sup> 233/2015 A Coruñako PAren epaia 2015eko uztailearen 10ekoa (ROJ: 1919/2015), hirugarren zuzenbide-oinarria

<sup>74</sup> Gogoratu, KZ 3. art.: «1. Arauak beren hitzen berezko esanahiaren arabera interpretatuko dira, testuinguruari, aurrekari historikoei eta legegintzazko aurrekariari, eta aplikatu behar diren garaiko gizarte-errealitateari dagokienez, batez ere arauen espiritua eta helburua kontuan hartuta. 2. Ekitatea haztatu egin beharko da arauen aplikazioan; hala ere, auzitegien ebazpenek ekitate horren gaineko erantzukizun eskusiboa izango dute, legeak esanbidez baimentzen duenean bakarrik».

<sup>75</sup> 700/2014ko AGE 2014ko azaroaren 21ekoa (ROJ: 5817/2014)

egiten du modu egonkorrean; gainera, Lehen Hezkuntzako ikasketak amaitzen ari da gorputz-hezkuntzaren espezialitatean. Egiaztatu da seme nagusia ekonomikoki independentea dela, izan ere, lau kontu korrante ditu bere izenean, horietako batean 13.018,61€-ko saldoa duelarik; eta auto berria dauka. Ondorioz, epaian adierazi zen mantenua azkentzea justifikatzen duten inguruabarrak aldatu zirela. Gainera, KZ 152.3. artikulua interpretatuta, jurisprudenziaren arabera, behin prestakuntza amaituta (profesionala edo unibertsitatekoa), osasun ona eta ordaindutako lanerako prestutasuna izanik, eta dagoeneko lan-merkatuan sartuta, ulergarria izan daitekeen ezaguera hobetzeko grinak edo hobeto ordainduak diren lanbideak itxaroteko erosotasun hutsak ez dute mantenu-pentsioaren biziraupena justifikatzen. Hori bai, semeak beharrezko duela behar bezala frogatzen badu, gurasoen aurkako mantenu-akzioa tartera dezake; baina, egoera honetan, adierazitako baldintzak kontuan izanda, auzitegiak zera adierazi zuen: ez dago oinarririk lan egiteko gaitasun fisiko eta psikiko osoa duen, eta jada modu egonkorrean lan-merkatuan sartu den 24 urtetik gorako pertsona baten aldeko mantenu-pentsioak indarrean jarraitzeko, izan ere, haren egoera ez da bateragarria mantenu-betebeharrari eusten dion mantenu-hartzailearen behararekin<sup>76</sup>.

Beraz, KZ 152.3. artikulua jasotako mantenu betebeharraren azkentze-kausaren inguruan dauden erantzun judizial anitzak ikusita, komenigarria da hurrengo ideia mahaigaineratzea: seme-alaben nahiz gurasoen interesak kontrajartzen dituzten egoera hauen aurrean nahiko ohikoa da, berez, aitzak seme-alabek independentzia ekonomikoa lortu dutela adieraztea, ordaindutako jardueraren bat egin dutela argudiatuz<sup>77</sup>. Baina Audientziek horri buruz duten iritzia argia da: noizbehinkako eta aldizkako lanbideak badira, ordainsari txikia jasotzen dutenak, eta, are garrantzitsuagoa dena, ikasten jarraitzen duten gazteek betetzen badituzte, mantenu-betebeharrak irauten du<sup>78</sup>. Epailleek ematen dituzten erabakiak desberdinak dira semeak edo alabak ikasketarik egiten ez duenean. Askotan esan da mantenu-pentsioa azkentzeko mantenu-hartzaileak ez duela zertan lan finkoa izan; hau da, oro har, aldez aurretik lan ordainduren bat egiteak mantenu-betebeharra iraungitzen duela

<sup>76</sup> 169/2022ko Palentziako PAREN epaia 2022ko apirilaren 1ekoa (ROJ: 200/2022), lehenengo zuzenbide-oinarria

<sup>77</sup> MORENO-TORRES HERRERA, María Luisa. *Estudios sobre el deber de alimentos*, Reus, Madril, 2021. <https://online-elderecho-com.ehu.idm.oclc.org/seleccionProducto.do?producto=UNIVERSAL&nref=2009/900415#%2FpresentarMemento.do%3Fnref%3D7d9dbd3f%26producto%3DUNIVERSAL%26idFragmento%3D%26rnd%3D0.05523656474683647>

<sup>78</sup> MORENO-TORRES HERRERA, María Luisa. *Estudios sobre el deber de alimentos*, Reus, Madril, 2021. <https://online-elderecho-com.ehu.idm.oclc.org/seleccionProducto.do?producto=UNIVERSAL&nref=2009/900415#%2FpresentarMemento.do%3Fnref%3D7d9dbd3f%26producto%3DUNIVERSAL%26idFragmento%3D%26rnd%3D0.05523656474683647>

ulertzen da<sup>79</sup>. Hala ere, horrek ez du esan nahi, jakina, semeak edo alabak, lan ordaindu horien ostean lana galtzearen ondorioz beharrizan-egoeran dagoela egiaztatuz gero, mantenua erreklamatu ezin duenik, baina dagokion prozedura hasita, noski<sup>80</sup>.

Ohikoa da, halaber, gurasoek seme-alabengan duten mantenu-betebeharra azkendutzat jotzen duen epaia lortzeko, seme-alabek lan egiteko aukera dutela alegatzea. Baina KZ 153.2. artikulua jasotako «*lanpostu, lanbide edo industria batean aritzeko aukera*» mantenu-obligazioa iraungitzeko arrazoi hori, malgutasunez interpretatu izan da. Auzitegiek uste dute semeak edo alabak lan bat egiteko gaitasuna badu ere, eta lan hori egiteko benetako aukerak baditu ere, unean uneko inguruabarrak kontuan hartuta, ez duela mantenu-eskubidea galtzen formakuntza jasotzen jarraitzen badu<sup>81</sup>. Dirudienez, ez da bizirauteko bitartekoak lortzeko semea edo alaba bere ikasketak sakrifikatzen behartu behar; hala ere, batzuetan, semearen edo alabaren adina aurreratua denean edo denbora gehiegi igarotzen duenean ikasketak amaitzeko, auzitegiek beren eskubidea aldi baterako mugatzea erabakitzen dute, eta pentsioa denbora jakin bat igarotakoan iraungiko dela deklaritzen dute<sup>82</sup>. Horren bidez, epaileek zera bilatzen dute: semeak edo alabak hezteko duen eskubidearen eta edozein helduk bere biziraupen-bitartekoak lortzeko duen betebeharraren arteko oreka, “parasitismo soziala” bultzatzea saihestuz<sup>83</sup>.

Adin nagusiko seme-alaba horren beharrizan egoera, bere erruagatik izan bada, mantenu-pentsioa jasotzeko eskubidea izaten jarraituko al du? Honen inguruan, azaroaren 5eko 991/2008 AGEa daukagu, zeinetan aitak bere semearenganako mantenu-pentsioa azkentzeko helburuarekin semeak berak bere borondatez lana utzi zuela argudiatu zuen, langabezia izena emateaz kezkatu gabe. Hau da, semearen beharrizan-egoera bere jokabidearen ondorio zela argudiatu zuen; izan ere, epaiak dioen moduan, adin nagusiak diren seme-alaben mantenua ez da azkentzen adin-nagusitasuna dela eta, aitzitik, betebeharra luzatzen da seme-alabek nahikotasun ekonomikoa lortu arte, baldin eta beharrizan hori ez

<sup>79</sup> 43/2000ko Nafarroako PAren epaia 2000ko martxoaren 6koa (ROJ: 228/2000), bigarren zuzenbide-oinarria

<sup>80</sup> 46/2000 Asturiaseko PAren epaia 2000ko otsailaren 8koa (ROJ: 486/2000), hirugarren zuzenbide-oinarria

<sup>81</sup> Cadizeko PAren epaia 2000ko maiatzaren 18koa (ROJ: 1880/2000), lehenengo zuzenbide-oinarrian adierazitakoa: 28 urteko alaba bere arkitekturako ikasketen azken urtean dabil, eta adin hori ezin da gehiegizko adinatzen hartu hain teknikoa den karrera batentzat, ezta ezin da aplikazio falta antzeman ere ez.

<sup>82</sup> 97/1998ko Lleidako PAren epaia 1998ko maiatzaren 29koa (ROJ: 493/1998), bigarren oinarri-juridikoan

<sup>83</sup> MORENO-TORRES HERRERA, María Luisa. *Estudios sobre el deber de alimentos*, Reus, Madril, 2021. <https://online-elderecho-com.ehu.idm.oclc.org/seleccionProducto.do?producto=UNIVERSAL&nref=2009/900415#%2FpresentarMemento.do%3Fnref%3D7d9dbd3f%26producto%3DUNIVERSAL%26idFragmento%3D%26md%3D0.05523656474683647>

bada sortu semearen edo alabaren beraren jokabidearen ondorioz (azken hau betebeharrak azkentzeko kausa izango litzateke, KZ 152.5. art.). Hala ere, epaileak semearenganako mantenu-pentsioa mantentzea erabaki zuen, aitzak ez zuelako frogatu semearen beharrizana bere erruagatik sortu zela<sup>84</sup>.

Aldiz, kontrako norabidea hartu zuen 395/2017ko ekainaren 22ko AGEk, zeinaren bitartez aita batek bere adin nagusiko semearengan zuen mantenu-obligazioa azkendu zen; izan ere, mantenu horren beharra semearen lanerako aplikazio faltagatik sortu zen, hots, semeari atxiki zitzaion beharrizanaren sorrera<sup>85</sup>. Gertaerak hurrengoak izan ziren: semea 1994. urtean jaio zen eta nerabezaroan ikasle txar-txarra izan zen; 20 urterekin Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasketak amaitu zituen; 2011. urtean zazpi suspentso izan zituen; 2012 eta 2013. urteetan ez zen matrikulatu eta beraz, ez zuen ikasketarik burutu; formakuntza profesional batean matrikulatu arren, horri probetxua ateratzen ari zion ziurtasunik ez zegoen; eta amaitzeko, epaia eman zen unean, bere amarekin bizi zen. Gertakari guzti hauek epaian frogatutzat jo ziren, eta adin nagusiko semearen aprobetxamendurik ez zegoenez, hots, lan egiteko adinean egon arren, ez zuenez lanik egiten ezta ez zegoenez ardurarekin ikasten zuen frogarik, ikasketak amaitu ez izana bere jarrerari egotz dakioken arrazoi batengatik izan zela erabaki zuen epaileak, modu jarraituan adierazitako aprobetxamendu eskasa zela eta. Adin nagusiko semeak bere prestakuntza akademikoa osatzeko gaitasun nahikoa zuela ondorioztatu zen, baita ikasketak ikasteko gogo urriagatik eten nahiz luzatu zituela ere, eta laneratzeko ahaleginik egin ez zuela ere. Beraz, hau guztia ikusita, epaileak horixe bera erabaki zuen: aitzak bere adin nagusiko semearengan zuen mantenu-pentsioa<sup>86</sup> azkendu<sup>87</sup>. Hau beraz, KZ 152.5. artikulua aurreikusitako mantenua azkentzeko kausa islatzen du, mantenu-hartzailea mantenu-emailearen ondorengoa izanik, bere beharrizana beraren jokabideak sortu zuen, lanean ez zelako arduratsua izan.

<sup>84</sup> 991/2008ko AGE 2008ko azaroaren 5koa (ROJ: 5805/2008), hirugarren zuzenbide-oinarrian

<sup>85</sup> Gogoratu, KZ 152.5. artikulua: «*Modu berean, mantenua emateko betebeharrak amaitzen da: 5. Mantenu-hartzailea mantenua eman behar duenaren ondorengoa denean, baldin eta mantenu-hartzaile horren beharrizana sortu bada beraren jokabidea makurra izan delako edo bera lanean ez delako arduratsua izan, betiere arrazoiak dirauen artean*».

<sup>86</sup> Kasu honetan, epaileak erabaki hori hartu arte, aitzak mantenu-obligazioa mantenu-pentsioaren bidez egikaritzen zuen, gurasoen bizikidetzara amaitu baitzen eta beraz, semearekin bizi ez zen gurasoak, kasu honetan, aitzak, amari 600€-ko mantenu-pentsioa ordaintzen zion, formakuntza profesionaleko ikasketak iraun bitartean mantenuko zena 135/2007 epaian (2008ko uztailaren 24koa) akordatu bezala.

<sup>87</sup> 395/2017ko AGE 2017ko ekainaren 22koa (ROJ: 2511/2016), laugarren zuzenbide-oinarria

Adin nagusikoak diren seme-alaben mantenu-eskubidearen denbora-mugaren azterketarekin amaitzeko, oso beharrezkoa da familia-etxebizitza uzten duen adineko seme-alabaren egoeraren aurrean epaileek ematen duten erantzuna azaltzea, beharbada, eztabaida gehien ematen duen zirkunstantzia baita: “adin nagusia banaiz eta etxetik banoa, gurasoenganako mantenu-eskubidea galduko al dut?” Adibidez, 151/2000ko AGEk<sup>88</sup> dioen moduan, alaba batek familia-etxebizitza uzten duenean, ezin du ahaztu askatasunak, hots, etxetik joateak, prezio bat suposatzen duela, hala nola, erosotasun batzuen galera; eta alabak jakin behar du, bere familia-nukleoaren aurkakoa den bizitza propioa eraiki nahi badu, familia-nukleo edo familia ingurune horren harrera eta ekonomia-abantailak galtzen dituela. Hau da, gertakizun zehatz horiek kontuan izanda, Auzitegi Gorenak erabaki zuen alaba horrek gurasoek inposatu nahi zioten bizimodua onartu nahi ez bazuen, ezingo zuela bere bizitza propioa gurasoen borondatearen aurka beren ordainketaren bidez eraiki.

Familia-etxebizitza uztearen ideia horren hari beretik, bada aipatzea merezi duen kasu berezi bat: adin nagusia den alaba bere ezkontidearekin bizitzera doanean, zer gertatzen da bere gurasoekiko duen mantenu-eskubidearekin? 2004ko ekainaren 23an Cadizko PAK emandako epaiaren arabera<sup>89</sup>, aita batek adin nagusia zen bere alabaren mantenu-pentsioa azkentzea eskatu zuen, izan ere, alabak ezkonbizitza egiten zuela egiaztatu zen. Hala ere, auzitegiak hau esan zuen: *«eskaera horrek ezin du harrera onik izan; izan ere, konpentsazio-pentsioarekin<sup>90</sup> gertatzen ez den bezala, seme-alabentzako mantenu-pentsioa ez da azkentzen onuradunak beste pertsona batekin duen senar-emazte elkarbizitzagatik»*, eta honako hau gaineratu zuen: *«Hain ondorio erradikala izateko, beharrezkoa da, bizikidetzaren ondorioz, mantenu-hartzailearen egoera ekonomikoa hobetzea, bere premiei aurre egiteko nahikoa izan arte, eta autoetan ez dago horren frogarik»*.

<sup>88</sup> 151/2000 AGEa 2000ko otsailaren 23koa (ROJ: 1394/2000)

<sup>89</sup> MORENO-TORRES HERRERA, María Luisa. *Estudios sobre el deber de alimentos*, Reus, Madril, 2021. <https://online-elderecho-com.ehu.idm.oclc.org/seleccionProducto.do?producto=UNIVERSAL&nref=2009/900415#%2FpresentarMemento.do%3Fnref%3D7d9dbd3f%26producto%3DUNIVERSAL%26idFragmento%3D%26rnd%3D0.05523656474683647>

<sup>90</sup> Gogoratu, ez dauka lan honekin lotura handirik, baina auzitegiak esandakoa uler dadin, pensio konpentsatzailea gogoraraziz, 990/2023 AGE 2023ko azaroaren 16koa (ROJ: 12851/2023)-ren arabera: *«...komeni da adieraztea konpentsazio-pentsioaren helburua ezkontide batek banantze- edo dibortzio-kasuetan bestearen posizioari dagokionez duen desoreka ekonomikoa konpontzea dela, horrek ezkontzaren aurreko egoera baino okerragoa den egoera dakarrenean; eta hitzarmen arauemailean edo epaian ezarri behar da, KZ 97. artikulua xedatzen duen bezala. Konpentsazioa izan daiteke aldi baterako edo mugagabeko pensio bat, edo prestazio bakar bat, hitzarmen arautzailean edo epaian ezarritakoaren arabera»*.

Beraz, beste kasu berezi honen aurrean, hau da, adin nagusikoa den alabak beste pertsona batekin ezkontzako bizikidetza egin arren, gurasoen mantenu-betebeharraren funtsaren fokoa alabaren beharrezan jartzen da; beste modu batean esanda, ezkonbizitza egin arren, alaba horrek beharrei aurre egiteko baliabide nahiko dituen frogarik ez dagoenez, ezin da bizikidetza berri hori ondare hobekuntzat hartu eta ondorioz, aita horrek bere alabarekiko duen mantenu-betebeharra mantentzen da, ez da azkentzen. Hala ere, epai honetan emandako alabarekiko hain erantzun onuragarria, kontraesanean dihardu epaileen beste erabakiekiko<sup>91</sup>; izan ere, beste kasu batzuen aurrean, epaileak seme edo alabaren askatasunak eta familiaren etxebizitza uzteko erabakiak familia-ingurune harrera ekonomikoaren abantailei uko egitea dakarrela erabaki du, eta ondorioz, mantenu-eskubidea azkendu.

Beraz, bizikidetza familiarra adin nagusiak diren seme-alabek mantenua jasotzeko betekizuna ez den arren, batzuetan, bizikidetza uztea adinez nagusia den semeak independentzia ekonomikoa lortu izanaren seinale izango da, baina familia-elkarbizitza ezak berez ez du mantenua jasotzeko eskubidea baztertzen<sup>92</sup>. Mantenua irauteko, beharrezkoa dena adin nagusia den seme-alaba horrek ekonomikoki independentea ez dela egiaztatzea da<sup>93</sup>. Hala ere, Probintzia Auzitegiak familia-bizikidetza definitzerakoan honela dihardu<sup>94</sup>: *«bizikidetza-terminoari buruz egin behar den interpretazioak zentzu zabala izan behar du, hau da, bizikidetza egongo da adin nagusiko seme edo alaba bat ekonomikoki bere gurasoen menpe dagoenean, nahiz eta egunero haiekin bizi ez»*. Izan ere, oso ohikoa da seme-alabak, ikasketak direla-eta, beste herri batera joatea bizitzera, horrek elkarbizitzaren irizpidea desagertarazten ez duelarik. Eta *a sensu contrario*, ez ginateke egoera legal horretan egongo, guraso batekin bizi arren seme nagusia ez balitz ekonomikoki haren mende egongo.

---

<sup>91</sup> Gogoratu, joera honetan 151/2000ko AGE aipatu dugula 93. oin-oharrear, edo beste adibidetzat 168/2015 Bartzelonako PAren epaia 2015eko martxoaren 25ekoa (ROJ: 2471/2015) ebazten zuena. Horretan, honako hau adierazi zen, laugarren zuzenbide-oinarrian: *«...Seme nagusiarentzako, Porfirioarentzako, mantenu-prestazioa irautegi egin behar da, izan ere, jarduteko gaitasun osoa baliatuz, adin-nagusitasunera iritsi ondoren erabaki du amaren familia-nukleoan zegoen bizikidetza uztea»*.

<sup>92</sup> HERRÁN ORTIZ, Ana Isabel. «La solidaridad familiar en tiempos de crisis. hacia una revisión jurisprudencial de la prestación de alimentos a favor de los hijos en el derecho civil español». *Revista de Derecho, Empresa y Sociedad*, 6. zenb., 2015, 208. orrialdea.

<sup>93</sup> HERRÁN ORTIZ, Ana Isabel. «La solidaridad familiar en tiempos de crisis. hacia una revisión jurisprudencial de la prestación de alimentos a favor de los hijos en el derecho civil español». *Revista de Derecho, Empresa y Sociedad*, 6. zenb., 2015, 209. orrialdea

<sup>94</sup> 101/2006 Gironako PAren epaia 2006ko martxoaren 21ekoa (ROJ: 158/2006)

Laburbilduz, azaldu bezala, ez dago ezarrita seme-alaba adin nagusiek beren gurasoen mantenu-pentsioa eskatzeko muga zehatzik eta hura azkentzeko kausak egoera bakoitzaren inguruabarrak aztertuta antzematen dira auzitegietan. Gainera, KZ 93. eta 146. artikuluek behartzen dute betebeharrekoaren aukeren eta mantenu-hartzailearen premien arteko proportzionaltasun egokia gordetzera, eta auzitegiek beti erraza ez den oreka lortu behar dute, semearen edo alabaren beharrezan ahalki eta gehien estalita, baina horrek ez du kalte larrikeria eragin behar gurasoaren interes legitimoetan<sup>95</sup>.

#### **4.2.2) Guraso eta seme-alabaren arteko harremanik eza mantenu-pentsioa ukatzeko arrazoi gisa**

Oso ohikoa den errealitate bat aztertuko dugu atal honetan, eta horregatik eta dituen berezitasunak direla eta, aparteko atala merezi du. Orain arte aztertu ditugun mantenu-pentsioa azkentzeko kausen artean ez dugu hurrengo aipatu: mantenu-pentsioa ordaintzera behartuta dagoen gurasoaren eta mantenu-pentsio horren hartzailea den seme edo alabaren arteko harremanik ez badago edo harreman hori kaskarra bada, zein da auzitegiek ematen duten erantzuna? KZ 152. artikulua ez du hitzez hitz mantenu-hartzailearen eta mantenu-emailearen harreman gabezia mantenua azkentzeko kausatzat jasotzen, beraz, auzitegiek emandako erantzunetara jo behar dugu. 104/2019 AGE<sup>96</sup> egoera hau azkentze-kausa gisa antzemateko inflexio-puntua izan zen.

Epai honen garrantzia oso handia izanenez, azken erabakiaren aurrekariak azaltzea komenigarria da. Lehendabizi, aita batek, bere bi seme-alaba adin nagusiekiko mantenu-pentsioaren azkentzea eskatu zuen, neurrien modifikaziorako prozeduraren bidez. Horretarako, hiru argudio eman zituen: batetik, bere gaitasun ekonomikoaren murrizketagatik; bigarrenik, seme-alaben ikasketetan aprobetxamendurik ez izateagatik; eta hirugarrenik, mantenu-hartzaileek mantenu-emailearekiko harreman pertsonala nulua izateagatik. Hala ere, aitak emandako hiru argudioetatik lehen auzialdiko epaiak soilik onartu zion hirugarren argudioa. Izan ere, alde batetik, ez zen aitaren kaudimenaren aldakuntzarik antzeman, eta bestetik, bi seme-alaben alferkeriarik existitu ezenez, ikasketen aprobetxamendu ezaren argudioa ere baztertu zen. Hori bai, epaileak seme-alabek aitarekiko

<sup>95</sup> 44/2023 Salamancako PAren epaia 2023ko otsailaren 1ekoa (ROJ: 28/2023), hirugarren zuzenbide-oinarria

<sup>96</sup> 104/2019ko AGE 2019ko otsailaren 19koa (ROJ: 502/2019)



harreman nulua zutela frogatutzat jo zuen, ez baitzuten elkar ikusten ez elkarrekin hitz egiten duela ia 10 urte, eta are gehiago, horretarako inolako interesik erakutsi gabe.

Hitzez hitz, hirugarren argudio hori frogatutzat jotzeko, epaileak, lehen auzialdian, honako hau arrazoitu zuen: *«Mantenua emateko betebeharra bertan behera uzteko hirugarren arrazoi gisa azaltzen den seme-alaben eta aitaren arteko harreman pertsonalik ezak eta seme-alaben arteko erabateko desafekzioak tratamendu desberdina izan behar du gainerako argudioen aurrean; izan ere, egia da gurasoen eta seme-alaben arteko harreman eza ez dela berariaz jasotzen KZ 152. artikuluan edo mantenu-betebeharra iraungitzat jotzeko beste manu batean, baina egia da, halaber, KZ 90. eta 91. artikuluetan eta Prozedura Zibilarren Legearen 775. artikuluan aipatzen diren "inguruabarrak" askotarikoak eta izaera desberdinekoak izan daitezkeela, eta inola ere ez direla numerus clausus».*

Gainera, lehen auzialdiko epaiaren arrazonamenduak honela jarraitu zuen: aurrekoa kontuan hartuta, adin nagusiko seme-alabek beren aitarekiko erabateko aldentzea frogatutzat jo zen, seme-alabek hala azalarazi zutelako eta lekuko gisa galdetu zitzaizenean hori adierazi zutelako. Alde batetik, semeak adierazi zuen duela 10 urte ez zuela bere aitarekin hitz egiten, eta ez zela berarekin harremanean jartzen saiatu ere. Gainera, aitak bere bilakaera akademikoari buruzko datuak semearen unibertsitateko ikasketa-buruzagitzan eskatu zituen, baina semea adin nagusikoa zenez, ez zien bere informazioa ematen utzi. Beste alde batetik, alabak adierazi zuen ez zuela bere aita ikusten duela 8 urte, eta berriro ikusteko interesik ez zuela aldarrikatu zuen ere.

Seme-alaben adierazpenez gain, epaileak zera adierazi zuen, laburbilduz: adin nagusiko seme-alabek beren aitarekiko harremana izateari uko egitea haien erabaki askea zen, eta aitak, mantenu-pentsioa ordaintzea onuradunekin traturik izan gabe eta haien ikasketen bilakaeraren berririk izan gabe, mantenu-hartzaileen aldeko mantenu-pentsioak irautea ez zen egokia. Izan ere, horrek seme-alabak bidegabe aberastea ekarriko zukeen, beren bizitzetatik aldendu duten aitaren kontura. Azken batean, seme-alaben adin-nagusitasuna eta aitarenganako etengabeko gaitzespena benetako garrantzia duten zirkunstantzien aldaketatzat jo zitezkeen, inplikatuaren eremu pertsonalean dituzten ondorioengatik, eta, gainera, egoera iraunkorra zen, seme-alabei egotzi ahal zitzaiena.

Lehen auzialdiko epai horren aurka, adin nagusiak ziren seme-alaba horien amak apelazio-helegitea tarteratu zuen, mantenu-pentsioaren azkentzearen aurrean desadostasuna adieraziz. Hala ere, Madrileko Probintzia Auzitegiak lehen auzialdiko epaiaren bide beretik jo zuen eta ondorioz, apelazio-helegitea ezeztatu zuen. Horren argudiaketaren oinarria hurrengoia izan zen: seme-alaben adin-nagusitasuna kontuan hartuta, zaintza ez zuen gurasoaren eta seme-alaben artean harreman afektiborik, jarraiturik eta denboran finkaturik ez zegoenez, eta seme-alaba horiek aitarekin harremanetan ez jartzeko erabaki askea eta borondatezkoa hartu zutenez, hori guztia zirkunstanzien funtsezko aldaketa gisa hartu behar zen, inplikatuaren eremu pertsonalean benetako eragin iraunkorra zuelako. Horrek ezkontza-prozeduraren barruan zaintza ez duen gurasoaren kontribuzio-betebeharra ondorerik gabe uztea justifikatzen zuen, KZ 91. artikulua babesean, 93. eta 152. artikuluekin batera, eta 152.4. artikulua ere aplikatu zitekeen. Hau da, Madrileko PAK emandako apelazio epaiak arrazonamendua lehen auzialdiko epaiaren argudiaketa baino urrunago eraman zuen eta KZ 152.4. artikulua aipatu zuen ere, zeinaren arabera, mantenua emateko betebeharra, mantenu-hartzaileak, nahitaezko jaraunse izan zein izan ez, jaraungabetzea dakarren hutsegitea burutu duenean azkenduko den. Laburbilduz, hau adierazi zuen Madrileko PAK apelazio-helegitea ezeztatzean: “instantziako epaiak emandako ebazpena zuzenbidearekin eta froga-emaizaren arabera frogatutako egitateekin bat dator”.

Ondorioz, epai horren aurka kasazio-helegitea tarteratu zen, Auzitegi Gorenaren aurrean, aztertzen ari garen 104/2019 AGE eragin zuelarik, hain zuzen. AGK azal bezala, lehen auzialdiko epaiak nahiz apelazio-epaiak aitak bere seme-alabekin harremanik ez izateagatik aitak haien alde zuen mantenu-prestazio ordaintzeko betebeharra azkentzearen alde agertu ziren. Gauzak horrela, Auzitegi Gorenak KZ 152.4. artikulua KZ 853. artikuluekin lotu zuen. Izan ere, artikulua honek gurasoak egitez txarto tratatzea edo hitzez modu larrian iraintzea seme-alabak eta ondorengoak jaraungabetzeko arrazoi zuzen gisa jasotzen du. Hari beretik, AGE honek, bere zuzenbide-oinarrietan, aurreko auzialdietako epaiak aipatu ez zuten Kataluniako Kode Zibilaren 451.17.e) artikulua aipatu zuen ere. Horren arabera, kausatzailearen eta senipartedunaren artean, argi eta garbi eta etengabe, familia-harremanik ez egotea, baldin eta senipartedunari bakarrik egotz dakiokkeen arrazoiren batengatik bada, jaraungabetzeko kausatzat jotzen da. Egia da gure KZk ez duela kausa hori jasotzen.

Beraz, 104/2019 AGEren amaierara helduz, aurretik aipatu bezala, Kataluniako Kode Zibilak senipartedunari egotz dakioken arrazoiagatik kausatzailearen eta senipartedunaren arteko harremanik ez egotea jaraunspengabetez kausatzat jotzen du, eta beraz, nahiz eta gure Kode Zibilak zehazki hori ez jaso, kausa hori zuzenbide komunera estrapola daitekeela adierazi zuen AGk, mantenu-pentsioa azkentzeko kausaren interpretazio malgua eginez. Izan ere, familiaren eta belaunaldien arteko elkartasuna adin nagusiko seme-alaben aldeko pentsioaren oinarria da, hain zuzen. Hala ere, Kataluniako KZk aurreikusitako jaraunsgabetez kausa horrek «*senipartedunari egotz dakioken arrazoiagatik*» harreman eza galdatzen du, eta kasu honetan, ez zen frogatu bi adin nagusiko seme-alaben eta aita horren arteko harreman eza seme-alaben erruagatik izan zela, hura aukera posible soil moduan azaldu zen. Xehetasun hau ez zen kontuan izan ez lehen auzialdian ez apelazio-epaian, harremanik ez izatearen errua norena zen «*garrantzirik gabeko aspektu*» moduan hartu baitzen; baina Auzitegi Gorenak kasazioan ñabardura hori garrantzitsutzat hartu zuen, seme-alabei egotz dakieken arrazoiaren harreman gabeziaren kausa izateak seme-alabak jaraunsgabetez kausa bihurtzen baitzuen, hain zuzen.

Guzti hau laburbilduz, nahiz eta lehen auzialdiko epaiak nahiz apelazio-epaiak mantenu-pentsioaren azkentzearen alde agertu, azkenean, Auzitegi Gorenak kasazio-helegitea onartuz mantenu-pentsioaren azkentzeko kausa frogaturik antzematen ez zela adierazi zuen. Hau da, aita horrek bere bi seme-alaba adin nagusien aldeko mantenu-pentsioa azkentzeko ez da nahikoa kausatzailearen eta senipartedunaren arteko familia-harremanik ez egotea, baizik eta AGk garrantzia eman dion “senipartedunari soilik egotzitako arrazoiagatik” izan dela frogatuta egon behar du.

Beraz, ondorio moduan, atal honen erdigune izan den 104/2019ko AGE oso garrantzitsua izan zen; izan ere, epai horrek mantenu-hartzaileari egotz dakioken familia-harremanik eza mantenu-betebeharra azkentzeko aukera moduan azaleratu zuenean, ugariak izan dira zentsu horretan eskatutako neurrien aldaketak<sup>97</sup>. Eta gaur egun, probintzia-azitegi-tako ebazpen gehienek mantenu-pentsioa azkentzeko eskaera ezesten

---

<sup>97</sup> BERIAIN FLORES, Irantzu eta IMAZ ZUBIAUR, Leire. «La falta de relación entre el progenitor alimentante y sus hijos mayores de edad como causa de extinción de la obligación de alimentos. análisis de la actualidad jurisprudencial». *Revista Boliviana de Derecho*, 34. zenb., 2022, 142. orrialdea.

dute, baina azpimarratu behar da 2020tik aurrera gora egiten ari direla eskaerak onesten dituzten epaiak<sup>98</sup>.

### 4.2.3) Erreklamatzeko legitimazioa

Atal honetan, adin nagusiak diren seme-alaben mantenua erreklamatzeko legitimazioa noren gain erortzen den aztertuko dugu. 30/1981eko uztailaren 7ko Legearen<sup>99</sup> 1. artikulua ekarritako KZ erreforma dela eta, KZ 93. artikulua zera dio: "*Epaileak, edozein kasutan, guraso bakoitzaren ekarpena zehaztuko du mantenua ordaintzeko, eta beharrezko neurriak hartuko ditu prestazioak eraginkorrak izan daitezen eta unean-unean seme-alaben egoera ekonomikoetara eta beharrianetara egokitu daitezen*". Horrez gain, 11/1990eko urriaren 15eko Legearen<sup>100</sup> 3. artikulua bigarren atal bat gehitu zion artikulua horri, honela geratuz: "*Familia-egoitzan adin nagusiko seme-alabak edo diru-sarrera propiorik ez duten emantzipatuak bizi badira, epaileak, ebazpen berean, bidezkoak diren mantenua finkatuko ditu, kode honen 142. artikuluan eta hurrengoan arabera*".

Beraz, manu horiek bi kasu aipatzen edo bereizten dituzte argi eta garbi: batetik, mantenu-eskaera deuseztasun-, banantze- edo dibortzio-prozesu baten esparruan edo garapenean egiten denean; eta bestetik, mantenu-eskaera prozesu horietatik kanpo egiten denean. Bigarren kasu horretan, seme edo alaba adinez nagusia izanik, hari dagokio berari dagozkion akzioak egikaritzea, eta, beraz, berak izango du mantenua erreklamatzeko legitimazio aktiboa, mantenua behar izanez gero, Kode Zibilaren 143. artikuluan<sup>101</sup> xedatutakoa aplikatu behar baita<sup>102</sup>.

<sup>98</sup> BERIAIN FLORES, Irantzu eta IMAZ ZUBIAUR, Leire. «La falta de relación entre el progenitor alimentante y sus hijos mayores de edad como causa de extinción de la obligación de alimentos. análisis de la actualidad jurisprudencial». *Revista Boliviana de Derecho*, 34. zenb., 2022, 150. orrialdea.

<sup>99</sup> Gogoratu, 30/1981 Dekretua, uztailaren 7koa, Kode Zibilean ezkontzaren arauketa aldatzen duena eta deuseztasun-, banantze- eta dibortzio-kausetan jarraitu beharreko prozedura zehazten duena.

<sup>100</sup> Gogoratu, 11/1990 Legea, urriaren 15ekoa, Kode Zibilaren erreformari buruzkoa, sexuagatiko bereizkeriarik ezaren printzipioa aplikatuz.

<sup>101</sup> Gogoratu, KZ 143. artikulua: «*Elkarri mantenua ematera behartuta daude, aurreko artikuluan adierazitako hedadura osoan: 1) Ezkontideak. 2) Aurrekoak eta ondorengoak. Neba-arrebek bizitarako beharrezkoak diren laguntzak bakarrik zor dituzte, horiek behar dituztenean, mantenu-emaileari egotzi ezin zaion edozein arrazoiren ondorioz, eta, hala denean, laguntza horiek luzatuko dira euren hezkuntzarako beharrezkoak direnetara*».

<sup>102</sup> MARTIN ÁLVAREZ, Clara Eugenia. «La legitimación activa de los progenitores para reclamar las pensiones alimenticias devengadas de los hijos cuando estos han alcanzado la mayoría de edad». *Noticias Jurídicas*, 2023. <https://noticias.juridicas.com/conocimiento/articulos-doctrinales/17765-la-legitimacion-activa-de-los-progenitores-para-reclamar-las-pensiones-alimenticias-devengadas-de-los-hijos-cuando-estos-han-alcanzado-la-mayoria-de-edad/> -tik eskuratutakoa.

Hala ere, mantenu-eskaera deuseztasun, banantze edo dibortzio-prozesu baten barnean egiten denean, nork dauka mantenua erreklamatzeko legitimazioa? Hasteko, aipatutako KZ 93. artikulua bigarren paragrafoak oso gai eztabaidagarriak sortu izan ditu, bai doktrinan eta bai jurisprudentzian; eta hain zuzen ere, zalantza gehien sortu duen gaia ezkontza-prozesuan harekin bizi den seme-alabaren mantenua erreklamatzeko gurasoaren legitimazioa izan da<sup>103</sup>.

156/2017ko AGEaren arabera, 2017ko martxoaren 7koa, arazo horren jatorria KZ 93. artikulua bigarren paragrafoak bere aplikaziorako ezarritako baldintzetan aurkitzen da. Izan ere, bi baldintza hauek galdatzen ditu: batetik, seme-alaba nagusiek diru-sarrera propiorik ez izatea, doktrinak eta jurisprudentziak zentzu zabalean interpretatzen duena, hau da, ez da haien erabateko gabezia, baizik eta nahikoa ez izatea; eta bestetik, seme-alaba nagusiak familiaren egoitzan bizitzea, eta horrek ere interpretazio zabala merezi izan du. Lehenengo betekizunak seme-alaba adindunen mantenu-eskubidea aitortzen du, KZ 143. artikulua arabera, eta, beraz, haiek dira mantenua behar dutenak. Bigarren betekizunak, seme-alaba nagusien mantenua erreklamatzeko bide prozesal berria dakar, zehazki, ezkontza-prozesuan finkatzen direnak. Martxoaren 7ko 857/2017ko AGEaren epai beraren gertakizunetan, adibidez, seme-alaba adindunak Ingalaterran bizi dira prestakuntza-arrazoiengatik, eta hori ez litzateke zentzu zabalean ulertutako bizikidetzak ukatzeko nahikoa izango, baina haiek beren bizitzak zuzentzeko eta antolatzeko autonomia izatea, aldiz, hura ukatzeko nahikoa izango litzateke. Izan ere, seme-alaba horiek beren gurasoekin batera, errentan hartutako higiezin baten titularkideak dira, eta bai bere kabuz bai gurasoen mantenu gisa lortutako errentarekin beren beharrak ordaintzen dituzte. Aurrekoa ez dator bat guraso bakarreko familia-bizikidetzako egoera batekin.

Hala eta guztiz ere, manuak ez du zehazten, ezkontza-prozesuaren barruan, mantenu-pentsioa erreklamatzeko legitimazioa nork duen, eta horregatik, atal honetan aztertu nahi dugu. Legitimazioa seme nagusiarekin bizi den gurasoari ematen dion arau baten falta sumatzen da<sup>104</sup>. Horren aurrean, apirilaren 24ko 411/2000ko Auzitegi Gorenaren epaiak argi utzi baitu seme nagusiarekin bizi den gurasoak duela legitimazioa<sup>105</sup>. Epai horretan hitzez hitz

<sup>103</sup> 156/2017 AGE 2017ko martxoaren 7koa (ROJ: 857/2017)

<sup>104</sup> 156/2017 AGE 2017ko martxoaren 7koa (ROJ: 857/2015)

<sup>105</sup> 411/2000 AGE 2000ko apirilaren 24koa (ROJ: 3422/2000)

hau adierazi zen: «KZ 93.2. artikulutik, mantenua behar duten seme-alaba adindunak elkarrekin bizi diren ezkontidearentzat, ezkontzari amaiera ematen dion prozesuaren epaian beste gurasoak seme-alaben mantenu-premia horiek asetzeko ekarpena ezartzeko interes handia sortzen da. Ezkontza-hausturaren ondorioz, familia-nukleoa banandu egiten da, guraso bakarreko familia bat edo bi sortuz, guraso bakoitzak eta berarekin bizi diren seme-alabek osatuak, adinez nagusiak izan ala ez. Guraso bakarreko familia horietan, familia-bizitzaren alderdi guztiak zuzentzeko eta antolatzeko eginkizunak gurasoari dagozkio, eta berarekin bizi diren adin nagusiko seme-alaben mantenua ordaintzen lagundu behar badu, beste gurasoari seme-alaba nagusien mantenuari egin beharreko ekarpena eskatzeko interes legitimoa du, juridikoki babestu beharrekoa. Ezin da ahaztu KZ 93. artikulua 2. paragrafoak ezarritako ezkontzako prozedura horietan adin nagusiko seme-alaben mantenuari buruzko neurriak hartzeko aukera ez dela seme-alaba horiek gurasoen mantenua eskatzeko duten eskubide eztabaidaezinean oinarritzen, baizik eta gurasoetako batekin bizi diren bizikidetzaren egoeran oinarritzen da. Bizikidetzaren hori ezin da ulertu etxebizitza berean jaiotze hutsagatik; aitzitik, familia-bizikidetzaren zentzurik zorrotzenez ulertu behar da, eta, beraz, bizikidetzaren horrek osatzen duten pertsonen artean eragiten du. Azaldutako guztiak ondorioztatzen da KZ 93.2 artikuluan aipatzen den beharizan-egoeran dauden seme-alaba adindunak elkarrekin bizi diren ezkontideak legitimazioa duela beste gurasoari hark seme-alaba horien mantenuerako egin beharreko ekarpena eskatzeko guraso komunaren arteko ezkontza-prozesuetan».

Beraz, mantenuaren eskaera deuseztasun-, banantze- edo dibortzio-prozesu baten esparruan edo garapenean egiten den kasuetan, akzio horietarako legitimazio aktiboa, adin nagusiko seme-alabekin bizi den gurasoak eskatutako mantenua eskatzeko akzioa barne, guraso horri dagokio bakarrik. Hau da, gurasoari adin nagusiko seme-alaba komunek eragindako mantenua erreklamatzeko legitimazio prozesal aktiboa ematen zaio honako egoera hauek gertatzen direnean: eskaera hori deuseztasun-, banantze- edo dibortzio-prozedura batetik datorrenean; erreklamatzeko duen guraso hori eta adin nagusiko seme edo alaba hori elkarrekin bizi badira<sup>106</sup> non guraso hori familia-bizitza antolatzen eta

<sup>106</sup>635/2016 AGE 2016ko urriaren 25ekoa (ROJ: 4640/2016)-n adin nagusiko seme-alaben mantenua erreklamatzeko, familia-etxebizitzaren esleipenaren bidez. AGk zera esan zuen horren aurrean: «mantenu-hartzaile adin nagusikoek – 2012ko martxoaren 30eko epaia –, Kode Zibilaren 142. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren arabera arautzen direnek, eskubidea dute behar duten mantenuaren zati bat eskuratzeko, familia-etxebizitzaren erabilera esleitzen, elkarrekin bizitzea aukeratu ez duen gurasoaren kanpo utzita...»

zuzentzen duen; eta adin nagusiko semeak edo alabak mantenu hori behar duenean, diru-sarrerarik edota baliabiderik ez duelako bere independentzia ekonomikoa ahalbidetzeko<sup>107</sup>.

## 5) ONDORIOAK

Lanaren amaierara heldu gara, eta beraz, beharrezkoa da barnebildu ditugun ondorioak azaltzea. Berez, atal honetan lan osotik ondorioztatu ditugun ideia garrantzitsuenak laburbilduko ditugu, sarreran aipatutako helburuekin lotuz eta hausnarketa pertsonalak gehituz.

Lehendabizi, argi geratu da, seme-alabek adin nagusitasunera heltzeak ez dituela gurasoak mantenu-betebeharretik salbuesten. Honen oinarrian familia solidaritatearen kontzeptua dago eta Konstituzioak 39. artikuluan gurasoengan ezartzen duen betebeharra da. Noski, seme-alabak adingabeak direnean mantenu-betebeharra argiago dago jasota legean, baina horrek ez du esan nahi adin nagusitasunak automatikoki independenteak bihurtzen dituenik. Hau argitzea oso garrantzitsua da, gazteen artean ohikoa baita pentsatzea “18 urte dituzunean, ahaztu zure gurasoak” edo antzerako ideiak; badirudi, adin nagusitasunera heltzeak bizitzeko independentzia lortzea suposatzen duela, eta ez da horrela. Gainera, gaur egungo errealitatea ikusita, oso-oso zaila da 18 urterekin beharizanik ez izatea. Gaur egun soldata duin bat izateko, eta iraunkorra izateko, tituluren bat eskatzen da, eta etengabeko “ez da nahikoa”-n bizi gara. Beraz, kasu askotan 18 urte izateak edo emantzipatuta egoteak ez du gurasoekiko independentzia ekonomikoa ekartzen.

Bigarrenik, ahaideen arteko mantenuak, eta horren barruan adin nagusiko seme-alaben mantenuak dituen ezaugarrien artean elkarrekikotasuna dugu. Elkarrekikotasuna funtsezko ezaugarria da, mantenu-obligazioa berezi egiten duena. Izan ere, mantenu hori seme-alabek gurasoei erreklama dezakete, seme-alabak subjektu aktiboa izanik, eta gurasoak subjektu pasiboak; baina aldi berean, kontrako norabidea ere hartzen du, hots, gurasoek seme-alabei erreklama diezaiekete mantenua, ahaideen artekoa baita. Hala ere, lan honetan

---

<sup>107</sup> MARTIN ÁLVAREZ, Clara Eugenia. «La legitimación activa de los progenitores para reclamar las pensiones alimenticias devengadas de los hijos cuando estos han alcanzado la mayoría de edad». *Noticias Jurídicas*, 2023. <https://noticias.juridicas.com/conocimiento/articulos-doctrinales/17765-la-legitimacion-activa-de-los-progenitores-para-reclamar-las-pensiones-alimenticias-devengadas-de-los-hijos-cuando-estos-han-alcanzado-la-mayoria-de-edad/> -tik eskuratutakoa.

lehenengo norabide horretan zentratu gara: seme-alabek gurasoei eska diezaieketen mantenua.

Hirugarrenik, mantenuaren barne elikagaiak, gelak, arropak, osasun-laguntzak, hezkuntza nahiz prestakuntza, haurdunaldi- nahiz erditze-gastuak eta hileta-gastuak sartzen dira. Hala ere, aztertutakoaren arabera, osasunarekin eta formakuntzarekin harremandutako gastuak dira auzitegietan eztabaida gehien eragiten dutenak. Hala, alde batetik, osasun-laguntzen barnean, gurasoek adin nagusiak diren seme-alaben Gizarte Segurantzak estaltzen ez dituen gastuak ordaintzera egongo dira behartuak, baita farmazia-gastuak ere. Beste alde batetik, formakuntza-gastuei dagokienez, nahiz eta seme-alabak adin-nagusitasunera iritsi, ikasten jarraitzen duten eta premia egoeran dauden seme-alaben gastuak gurasoek ordaindu beharko dituzte. Adibidez, gida-baimena ez da bi gurasoei ordaintzera behartzen zaien gastua, premiazkoa ez dela antzematen delako; hala ere, beti bezala, auzitegiek kasuan kasuko baldintzak aztertzen dituzte. Unibertsitateko gastuen aurrean epaileek ere kasuan kasuko baldintzak aztertuta erantzun bat edo bestea ematen dute; hau da, auzitegiek 18 urte egin ostean formakuntza jasotzea lan-mundurako funtsezko sarbidea dela argi daukate, baina gero seme-alaba bakoitzaren egoera zehatza aztertzen da. Izan ere, aztertutako epaiak kontuan izanik, 20 urteko alaba baten aldeko mantenu-prestazioa onartu zen, hark bere unibertsitateko ikasketak egin zitzaizkion; aldiz, 27 urteko seme batek bere aitari erreklamaturako Unibertsitate Politeknikoaren gastua ezeztatu zen. Beraz, oro har, kasuan kasuko baldintzak aztertzen diren arren, formakuntza-gastuak estaltzearen atzean txanpon bereko bi aurpegi topa ditzakegu: alde batetik, seme-alabaren prestakuntzarako beharrezkoak diren ikasketak, askotan independentzia ekonomikoa emango dion lanpostua lortzeko nahitaezko baldintza baita, hain zuzen, baina beste alde batetik, seme-alaben “parasitismo soziala” geldiarazi nahi da, hots, lan egiteko benetako saiakerarik ez egitea gurasoen lepo bizitzea. Eta auzitegiek, hain zuzen, seme-alabek lan egiteko saiakerarik ez egitea saihestea bilatzen dute, aztertutako epaiak kontuan izanik.

Laugarrenik, adin nagusiak diren seme-alabek gurasoengandik mantenua jaso dezaten bi baldintza bete behar dira: mantenu-hartzailearen (adin nagusiko seme-alaba) beharrezkoa eta mantenu-emaitzailearen (gurasoak) gaitasun ekonomikoa. Bi baldintza hauek ez dira exijitzen adin txikiko seme-alabaren mantenua, beraz, badira adin nagusiko seme-alabaren mantenuaren berezko betekizunak. Hala ere, batez ere mantenu-hartzailearen egoera beharrezko dela antzemateko, auzitegien interpretazioa behar izaten da, normalean. Izan ere, beharrezkoa



independentzia ekonomikorik ezta bizirauteko diru-sarrera nahikorik ez izatearekin harremantzen da, baina kasu bakoitzak bere inguruabarrak dituenaz, independentzia ekonomiko hori baloratzeko auzitegiak sartzen dira jokoan.

Bosgarrenik, gurasoak elkarrekin bizitzen jarraitzen duten bitartean, mantenu-betebeharraren betetzeak ez du arazo handirik sortzen. Aldiz, gurasoen dibortzio eta banaketa kasuan, mantenu-pentsioa sartzen da jokoan, eta horren ordainketak arazoak sor ditzake. Izan ere, berez, gurasoek beren seme-alaba adin nagusiekiko duten mantenu-betebeharrak ez du legeak ezarritako lege-muga zehatzik; hori dela eta, auzitegiek egoera bakoitzaren xehetasunak baloratzen dituzte, gurasoek mantenu-pentsioa noiz arte ordaindu beharko duten jakiteko. Berez, oro har, KZ 152. artikulua zerrendatutako kausengatik azkenduko da; baina horietako bi bereziki eztabaidagarriak dira. Beraz, ikusi dugun bezala, lan honen sarreran planteatu diren zenbait galderen erantzuna jurisprudenzian bilatu behar dira.

Seigarrenik, aipamen berezia merezi du mantenu-pentsioa ordaintzera behartuta dagoen gurasoaren eta seme-alaba adin nagusien arteko harreman eza mantenu-betebeharra azkentzeko kausa gisa eztabaidatu egin dela auzitegietan. Noski, ikusi dugun moduan, auzitegiek kausa hura sakonean aztertu egiten dute, eta gakoa harreman eza mantenu-hartzaileari egotzi ahal izatea da. Hau oso interesgarria da; izan ere, harremanik ez duten guraso baten ondarearen bidez bidegabeki aberastea ekidin nahi da, baina aldi berean, oso balorazio zorrotza egiten da, harremanik ez izate hutsak balio ez duelarik, hots, seme-alabari egotzi behar zaio. Aipatu bezala, 2019an Auzitegi Gorena honen inguruan azaldu zen, bere sententzia inflexio-puntua izan zelarik harreman gabezia mantenu-pentsioa azkentzeko kausa gisa antzemateko.

Amaitzeko, adin nagusikoa den seme-alaba baten mantenu-pentsioaren erreklamazioari dagokionez, aipatzeko modukoa da banaketa edo dibortzio prozesuaren barne erreklamatzeko bada, seme-alaba horrekin bizi den gurasoak erreklamatzeko legitimazio aktiboa duela. Aldiz, dibortzio edo banaketa prozesuetatik kanpo, soilik adin nagusikoa den seme-alabak izango du legitimazio aktiboa.

## 6) BIBLIOGRAFIA

ACEDO PENCO, Ángel. *Derecho de familia*, Dykinson, Madril, 2013.

<https://elibro-net.ehu.idm.oclc.org/es/ereader/eHU/57102>-tik berreskuratuta.

AZNAR DOMINGO, Antonio eta GANDARA TOMÉ, Cristian. «Controversias jurídicas de la pensión de alimentos y la pensión compensatoria en el Derecho Civil», 2021,

*ElDerecho.com Noticias Jurídicas y Actualidad, Lefebvre.*

<https://elderecho.com/controversias-juridicas-de-la-pension-de-alimentos-y-la-pension-compensatoria-en-el-derecho-civil#659d75a792323>-tik berreskuratuta.

BERIAIN FLORES, Irantzu eta IMAZ ZUBIAUR, Leire. «La falta de relación entre el progenitor alimentante y sus hijos mayores de edad como causa de extinción de la obligación de alimentos. análisis de la actualidad jurisprudencial», *Revista Boliviana de Derecho*, 34. zenb., 2022, 118-155. orrialdeak.

CALLIZO LÓPEZ, M<sup>a</sup> Ángeles. «Obligación legal de alimentos respecto a los hijos mayores de edad: Análisis del artículo 66 de la Ley 13/2006, de 27 de diciembre, de derecho de la persona», *Revista de Derecho Aragonés*, ISSN 1135-9714., 2008, 61-85. orrialdeak.

CUENA CASAS, Matilde, “Título VI: De los alimentos entre parientes”, BERCOVITZ RODRÍGUEZ-CANO, Rodrigoren, *Comentarios al Código Civil*, Tirant lo Blanch, Valentzia, 2013.

<https://biblioteca-nubedelectura-com.ehu.idm.oclc.org/cloudLibrary/ebook/show/9788490337349>-tik berreskuratuta.

GALLARDO RODRÍGUEZ, Almudena, ESTANCONA PÉREZ, Araya Alicia eta BERTI DE MARINNIS, Giovanni. *Los nuevos retos del derecho de familia*, Tirant lo Blanch, Valentzia, 2020.

<http://biblioteca.nubedelectura.com.ehu.idm.oclc.org/cloudLibrary/ebook/show/9788413786049>-tik berreskuratuta.

HERRÁN ORTIZ, Ana Isabel. «La solidaridad familiar en tiempos de crisis. hacia una revisión jurisprudencial de la prestación de alimentos a favor de los hijos en el derecho civil español», *Revista de Derecho, Empresa y Sociedad*, 6. zenb., 2015, 204-229. orrialdeak.

JIMÉNEZ MUÑOZ, Francisco Javier. «La regulación española de la obligación legal de alimentos entre parientes», *Anuario de Derecho Civil*, 2. zenb., 2006, 743-792. orrialdeak.

LACRUZ MANTECÓN, Miguel Luis. *Convivencia de padres e hijos mayores de edad*, Reus, Madril, 2016. <https://elibro-net.ehu.idm.oclc.org/es/ereader/eHu/100490>-tik berreskuratuta.

MARTIN ÁLVAREZ, Clara Eugenia. «La legitimación activa de los progenitores para reclamar las pensiones alimenticias devengadas de los hijos cuando estos han alcanzado la mayoría de edad». *Noticias Jurídicas*, 2023.

<https://noticias.juridicas.com/conocimiento/articulos-doctrinales/17765-la-legitimacion-activa-de-los-progenitores-para-reclamar-las-pensiones-alimenticias-devengadas-de-los-hijos-cuando-estos-han-alcanzado-la-mayoria-de-edad/> -tik berreskuratuta.

MORENO-TORRES HERRERA, María Luisa. *Estudios sobre el deber de alimentos*, Reus, Madril, 2021.

<https://online-elderecho-com.ehu.idm.oclc.org/seleccionProducto.do?producto=UNIVERSAL&nref=2009/900415#%2FpresentarMemento.do%3Fnref%3D7d9dbd3f%26producto%3DUNIVERSAL%26idFragmento%3D%26rnd%3D0.05523656474683647>-tik berreskuratuta.

NIETO MORALES, Concepción, *Los jóvenes del siglo XXI en el contexto de la globalización: de lo académico a las experiencias personales de jóvenes*, Dykinson, Madril, 2016. <http://www.jstor.org/stable/j.ctt1k859gv>-tik berreskuratuta.

PADIAL ALBÁS, Adoración, *La obligación de alimentos entre parientes*, Jose Maria Bosch editor, Bartzelona, 1994. <http://hdl.handle.net/10803/8141>-tik berreskuratuta.

PÁRAMO DE SANTIAGO, Casto. «Derecho de alimentos: necesidad de quien pide, y el estado de fortuna de quien los da (Comentario a la SAP de Madrid, sección 14.ª, de 21 de julio de 2014)». *CEFLegal, Revista práctica De Derecho*, 169. zenb., 2015, 101-104. orrialdeak.

ROGEL VIDE, Carlos, *Alimentos y auxilios necesarios para la vida*, Reus, Madril, 2012.  
<https://elibro-net.ehu.idm.oclc.org/es/ereader/eHu/46475>-tik berreskuratuta.

VERDERA SERVER, Rafael, “Título V: De la paternidad y filiación, Capítulo I: De la filiación y sus efectos”, BERCOVITZ RODRÍGUEZ-CANO, Rodrigoren, *Comentarios al Código Civil*, Tirant lo Blanch, Valentzia, 2013.

<https://biblioteca-nubedelectura-com.ehu.idm.oclc.org/cloudLibrary/ebook/show/9788490337349>-tik berreskuratuta.

### **AUZITEGI GORENAREN EPAIAK**

918/1993 AGE 1993ko urriaren 5koa (ROJ: 6585/ 1993)

151/2000 AGEa 2000ko otsailaren 23koa (ROJ: 1394/2000)

411/2000 AGE 2000ko apirilaren 24koa (ROJ: 3422/2000)

184/2001 AGE 2001eko martxoaren 1koa (ROJ: 1584/2001)

991/2008ko AGE 2008ko azaroaren 5koa (ROJ: 5805/2008)

703/2014 AGE 2015eko urtarrilaren 19koa (ROJ: 427/2015)

700/2014ko AGE 2014eko azaroaren 21koa (ROJ: 5817/2014)

55/2015 AGE 2015eko otsailaren 12koa (ROJ: 439/2015)

603/2015 AGE 2015eko urriaren 28koa (ROJ: 4439/2015)

558/2016 AGE 2016ko irailaren 26koa (ROJ: 4101/2016)

635/2016 AGE 2016ko urriaren 25koa (ROJ: 4640/2016)

156/2017 AGE 2017ko martxoaren 7koa (ROJ: 857/2017)

395/2017ko AGE 2017ko ekainaren 22koa (ROJ: 2511/2016)

104/2019ko AGE 2019ko otsailaren 19koa (ROJ: 502/2019)

807/2023 AGE 2023ko maiatzaren 24koa (ROJ: 2376/2023)

990/2023 AGE 2023ko azaroaren 16koa (ROJ: 12851/2023)

### **PROBINTZIA AUZITEGIAREN EPALAK**

97/1998ko Lleidako PAren epaia 1998ko maiatzaren 29koa (ROJ: 493/1998)

46/2000 Asturiaseko PAren epaia 2000ko otsailaren 8koa (ROJ: 486/2000)

43/2000ko Nafarroako PAren epaia 2000ko martxoaren 6koa (ROJ: 228/2000)

Cadizeko PAren epaia 2000ko maiatzaren 18koa (ROJ: 1880/2000)

321/2002ko Cadizko PAren epaia 2002ko irailaren 20koa (ROJ: 2371/2002)

539/2002ko Valentziako PAren epaia 2002ko urriaren 22koa (ROJ: 5787/2002)

233/2005 Cantabriako PAren epaia 2005eko apirilaren 26koa (ROJ: 909/2005)

101/2006 Gironako PAren epaia 2006ko martxoaren 21koa (ROJ: 158/2006)

147/2008 Murziako PAren epaia 2008ko maiatzaren 9koa (ROJ: 478/2008)

73/2011 Cadizeko PAren epaia 2011ko ekainaren 23koa (ROJ: 489/2011)

1022/2011ko Pontevedrako PAren epaia 2011ko abenduaren 30koa (ROJ: 3346/2011)

214/2012 Tarragonako PAren epaia 2012ko ekainaren 1ekoa (ROJ: 810/2012)

542/2013ko Bartzelonako PAren epaia 2013ko urriaren 24koa (ROJ: 11198/2013)

10/2013ko Lleidako PAren epaia 2013ko urtarrilaren 24koa (ROJ: 63/2013)

168/2015 Bartzelonako PAren epaia 2015eko martxoaren 25ekoa (ROJ: 2471/2015)

233/2015 A Coruñako PAren epaia 2015eko uztailaren 10ekoa (ROJ: 1919/2015)

639/2021 Ourenseko PAren epaia 2021eko abenduaren 30ekoa (ROJ: 899/2021)

169/2022ko Palentziako PAren epaia 2022ko apirilaren 1ekoa (ROJ: 200/2022)

213/2022 Alicanteko PAren epaia 2022ko maiatzaren 2koa (ROJ: 977/2022)

44/2023 Salamancako PAren epaia 2023ko otsailaren 1ekoa (ROJ: 28/2023)

### **ARAUDIA**

Espainia. Errege Lege-Dekretua 1889ko uztailaren 24koa, Kode Zibila argitaratzen duena. Estatuko Aldizkari Ofiziala, 1889ko uztailaren 24koa, 206. zenb., 249tik 259rako orrialdeak.

Espainiako Konstituzioa. Estatuko Aldizkari Ofiziala, 1978ko abenduaren 29koa, 311. zenb. 39. artikulua.